

# HAUTESKUNDE OROKORRAK 2008

Eusko Alkartasuna



## 1.6 PROGRAMA



# 2008ko MARTXOAREN 9an EGINGO DIREN GORTE NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEETARAKO EUSKO ALKARTASUNAREN HAUTESKUNDE-PROGRAMAREN EGITURA

(6. bertsioa – 2008/02/20)

<b>1</b>	<b>DEMOKRAZIA-PRINTZIPIOA ETA EUSKAL GIZARTEAREN ERABAKITZEKO ESKUBIDEA</b>	<b>7</b>
<b>2</b>	<b>JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK</b>	<b>11</b>
<b>3</b>	<b>DATORREN LEGEALDIRAKO PROGRAMA-PROPOSAMENA</b>	<b>15</b>
<b>3.1</b>	<b>POLITIKAK GIZARTE GAIETAN</b>	<b>15</b>
3.1.1	LAN-MUNDURATZEA, ENPLEGUA ETA SOLIDARITATEA	15
3.1.2	GIZARTE-POLITIKA ETA GIZARTE ONGIZATEKOA	21
3.1.3	JUSTIZIA ADMINISTRAZIO GERTUA ETA GIZATIA	28
<b>3.2</b>	<b>POLITIKAK EKONOMI GARAPENEN GAIETAN</b>	<b>31</b>
3.2.1	EKONOMI SUSTAPENA ETA GARAPENA	31
3.2.2	FORMAZIOA, IKERKUNTZA ETA JAKINTZAREN GIZARTEA	33
3.2.3	ZERGA ETA FINANTZA POLITIKA	37
3.2.4	GARRAIOA ETA HORRI LOTUTAKO AZPIEGITURAK	38
<b>3.3</b>	<b>POLITIKAK INGURUMENA BABESTEKO ETA BALORATZEKO GAIETAN</b>	<b>41</b>
3.3.1	URAREN ZIKLOAREN ERABATEKO IKUSPENA	41
3.3.2	HONDEKINEN GAIETAN PREBENTZIO, BERRERABILTZE ETA BIRZIKLATZE POLITIKAK	43
3.3.3	BALIO NATURALISTIKOA DUTEN ESPAZIOEN BENETAKO BABESA ETA BIODIBERTSITATEAREN BERMEA	44
3.3.4	POLITIKA ENERGETIKOA ETA KLIMA-ALDAKETA	46
<b>4</b>	<b>EUSKAL HERRIAREN ESKUBIDEEN DEFENTSA, BAKEA, LANKIDEETZA ETA GARAPENA, NAZIOARTEKO GAIETAN EAREN PROGRAMAREN ARDATZ</b>	<b>49</b>

## HITZAURREA

Orain amaitzen den legealdia bereziki gogorra izan da bakea lortzeko eta bere eskeekin bat datorren normalizazio politiko maila iristeko euskal gizarteak zuen itxaropenerako.

la ustekabez sortutako gobernu sozialista berri batek eskubide indibidual eta sozialen errespetuan aurrerapausoak emateko borondatea iragarri zuen, eta itxaropen berriak sortu zituen, bere erakunde demokratikoen bitartez Euskal Herriak egindako eskariekin bereziki areriorsua izanez eta Herrialde Historikoen burujabetasuna garatzeko edonolako nahiaren aurka Estatutik aurkako jarrera agertuz, politika espainolaren ikuspegi ultranazionalista baten berpizkundearekin urtetan gobernuan egon zen Alderdi Popularraren ostean izan bazen ere.

Hala ere, aldaketarako eta berrikuntzarako itxaropen horiek oso gutxi iraun zuten. Eusko Jaurlaritzak gehiengo osoz Estatutu Politiko berria onartu ondoren ikusi ahal izan zen Estatuan gauzak ez zirela aldatu. Txikia izanik ere negoziatzeko saiakera bat bera ere egin gabe EA Eren status politikoan edonolako aldaketari uko eginaz Espainiako estatuko organoetan eta estatuari obeditzen dioten alderdien gehiengoan euskal gizarteko erakundeen ordezkariak topatu zuten erabateko gaitzespenak, Zapatero Presidenteak zekartzan aire berriak nondik norakoak ziren erakutsi zigun.

Memoria historia bezalako eta diktadurazko erregimenak Salamancan lagatako dokumentazioa itzultzearena bezalako gaiak bete izana bezala hain gai sentiberak behar bezala itxi ez izana, garai frankistako epaien deuseztapena, frankismoaren eskutik errepresioa jasan zutenen egiazko arreta... bezalako gauzen aurrean gertatuz berriro ere biziatuak ageri ziren aire berriak.

Estatuaren kultura aniztasunaren errealitatearen, hizkuntza ofizial desberdinen eta baita bereziki sinbolikoak diren gaien, erkidego historikoen kirol-selekzioen aitortpena esaterako, aitortpenean ere Gobernu sozialistak ez du erakutsi bere aurretik egon ziren kontserbatzaileengandik desberdintzen den borondaterik.

Hala ere, Diputatuen Kongresuan gertatutakoa baino egoera zapuztaileago bat etortzeke zegoen. Estatuaren eta ET Aren arteko negoziaketa prozesuak, hark egindako etengabeko tregoa aitortpenarekin etorri zenak, bazirudien azken hamarkadatan bizi izan dugun biolentzia egoera etengabearekin amaituko zuen egoera batetara eraman gintzakeela. Estatutik, eta bereziki Alderdi Sozialistatik, egindako deklarazioek oinarri seguruak, oso landuak eta

arrakastaz amaitzeko posibilitate altuak zituen prozesu bat bermatuko zuten aldez aurreko kontaktuetan heldutasun maila bat ematen zuten aditzera.

Hala ere, denborak bere tokian jarri ditu. Adierazpen eta aieru haietako asko erretoriko hutsak eta negoziazio-mahaian eseritako aldeen onura politikorako prozesua erabiltzera bakarrik bideratuak agertu zaizkigu. Zoritxarrez, euskal gizartearen ordezkari legitimoak kanpoak uzteko beste saiakera bat.

Horrela, negoziazioak hautsi izanak eta ETA mehatxuen eta hilketen bide higuinarrira itzultzeak, Barajaseko aireportuaren T-4 terminalean egindako atentatuarekin, biolentziaren amaierara iristeko euskal gizartearen itxaropenei izugarritzko kolpe latza suposatu die.

Gobernu Zentralaren eta Alderdi Sozialistaren berehalako erantzuna aurreko legealdian Alderdi Popularrak hasitako bidera berriro etortzearena izan da, ETArekin biolentzia itzuli izanaren aurreikusteko moduko hauteskunde-ondorio negatiboak mugatzen saiatuz. Eta, zoritxarrez, esperientzia horretatik gutxi ikasi dutela erakutsiz.

Eusko Alkartasunatik beti defendatu izan dugu euskal biztanleriaren eta espainolaren ordezkari legitimoen arteko negoziazioaren eta akordioaren beharra. Biolentziaren amaiera ETArekin negoziatzeko beharra ahaztu gabe, negoziazio politikoa benetako eragile politikoen artean garatu behar da, hauteskundeetan berretsitako herritarren ordezkariak gauzatzen dutenen artean hain zuzen.

Eta Eusko Jaurlaritzaren gidaritzapean eta Gasteizko Legebiltzarreko gehiengoak berretsita herritarren ordezkariak horrek Espainiako estatuari obeditzen dioten alderdiek zoritxarrez gutxietsi zuten proposamen bat mahai gaineratu zuen jada. Euskal errealitatearen erabateko ezjakintasuna eta alderdi horien muin demokratikoaren ahultasun kezkarri bat gordetzen duen akats larri hori bideratu egin beharra dago datorren legealdian.

Eusko Alkartasunak Estatuarekin negoziaketa prozesu berri bat hasteko Eusko Jaurlaritzaren proposamena babesten du, prozesu horrek euskal gizartearen borondatea zalantzarik gabe zehaztuko duen kontsulta batekin amaitu behar duelarik nahitaez.

Babes horrek inori ezkututzen ez zaizkion oinarri jakinak ditu. Proposamen hori azkeneko bi legealdietan Euskal Autonomia Erkidegoa gobernatu duen Koalizioaren hauteskunde-programaren barne egon da. Baina haren egiletasunetik harago, jarrera horren benetako muina gizarte baten gehiengoaren borondatea errespetatzeko konpromisotik arazoak konpontzeko bide bakarra negoziazioa eta desberdinen arteko elkar ulertzetik datorrela

irmoki ustean dago; eta gizarte horrek benetan pentsatzen duena ezagutzeko era bakarra zuzenean galdetzea da. Euskal gizarteari zuzenean eta argi eta garbi bere borondate zehatza zein den adierazteko aukera ematea; azken finean, exijentzia demokratiko-kontu hutsa da.

Hastear dagoen legealdi honetan, Gorte Orokorretan Eusko Alkartasunak izango duen ordezkari-tza proposamen hori nahasterik gabe defendatuko duen ahotsa izango da, Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitze-ko duen eskubidearen errespetua exijitze-arena alegia.

Ez bakarrik gure lurralde eremuan, baita Estatu osoan ere, herritarren bizitza kalitatea hobetzeko proposamen zehatzekin printzipio horiek defendatuz segidako legealditan garatutako lanaren segurtasunarekin gurea egiten dugun erronka da hau.

Eusko Alkartasunaren printzipio ideologikoak, alderdi aurrerakoia eta sozialdemokrata gisa, gizarte zuzen, libre eta solidarioa eraikitze-za bideratua, aukera-berdintasunean eta Ongizate Estatuko ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko aukeran oinarritua, Estatuko parlamentuko organoetan bere ordezkarien zeregina herritar ororen bizitza kalitatea hobetzer-za bideratutako proposamenak gauzatzera eramen dute, bereziki sektore kaltetuenei dagokienean.

Justizia soziala, askatasuna eta solidaritatea balioak defendatzeko jarrera, XX. mendearen azken aldiko errealitate dinamikoari eta XXI. mendeko lehenengo urtetara egokituta, egun Estatuak oraindik euskal gizarteari zor dion autogobernua defendatze-arekin batera, Gorte Nagusietan bere ordezkarien ekintza politikoaren ardatz izan dira. Eta horretan jarraituko dute datorren legealdian, are gehiago printzipio horiek iragan abenduan Donostian egin zen Kongresuan berretsiak izan direnean.

Estatu mailako erakundeetan datozen lau urtetan Eusko Alkartasunak defendatuko dituen hainbat proposamen eta ekintza-lerro nagusienetakoak egituratzerakoan, erabateko garrantzia du ia sortu zenetik berea egin duen eta aurreko hauteskunde-programatan egon delarik ere bere burua aurrerakoitzat jotzen duen edonoren erakunde-jardueraren muineko elementu gisa erabateko indarra duen printzipio batek : Garapen Jasangarriaren printzipioak.

Politika ekonomikoak, gizarte politikak eta ingurumenekoak maila berdina hartzen duten hausnarketarako eredu oso gisa eratzeko ikuspegi sektorialetatik gain dagoen printzipioa da hau, aspektu guzti horiek elkar erlazionatzen dituen errealitate poliedriko baten elementu egituratzaile izanez. Beraz, politika horietako bakoitzari besteen une berean heldu behar

zaio, lehen mailako edo ekintzakotan eta konpontzaileetan banatzen zituen aurreko kontzeptualizazioa desagertaraziz.

Ikuspuntu horretatik, datorren legealdirako Eusko Alkartasunaren proposamenak hiru atal nagusitan banatuko dira : gizartekoa, ekonomikoa eta ingurumenekoa.

#### Politikak gizarte arloan

Lan-munduratzeara, enplegua eta solidaritatea

Gizarte-politika eta gizarte ongizatekoa

Aukera-berdintasuna eta eskubide-berdintasuna

Kultura eta informazio gizartea

#### Politikak ekonomi garapenerako gaitan

Ekonomi sustapena eta garapena

Formazioa, ikerketa eta jakintzaren gizartea

Zerga eta finantza politika

Garraioa eta horri lotutako azpiegiturak

#### Politikak ingurumena babesteko eta baloratzeko gaitan

Uraren zikloaren erabateko ikuspena

Hondakinen gaitan prebentzio, berrerabiltze eta birziklatze politikak

Baliabide mugatu gisa lurra babestea

Balio naturalistikoak duten espazioen benetako babesa eta biodibertsitatearen bermea

Politika energetikoa

# 1 DEMOKRAZIA-PRINTZIPIOA ETA EUSKAL GIZARTEAREN ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Euskadi barruan, eta haren eta Espainiako estatuaren artean, eztabaida politikoaren gai nagusietako bat hain zuzen ere Euskal Herriak, Euskal Gizarteak nahi bada, bere etorkizuna erabakitzeko gaitasunaren nondik norainokoan datza.

Denboraldi ilunenetako baten ondoren Espainiako estatura demokrazia iristeak, gai horretan bateratasuna bilatzea ekarri zuen, gutxienetako topagune bat bilatzea, hori Gernikako Estatutuan gauzatu zelarik. Une hartako baldintza zailen aurrean, langabezia-tasa izugarriarekin, erabateko desintegrazioan hazkunde-hasiera ekonomikoaren euskarri izandako sektoreekin krisian zegoen ekonomiarekin, hobetzeko itxaropen urriekin eta erabateko giro politiko ziurgabearekin, nahikoa borondate eta gaitasun egon zen iraganeko errealitate baten, eskubide historiko batzuen eta herritarren borondatearen aitortzan aurrera egiteko. Horietan oinarritu zen lehenengo topagune bat, epe ertaineko soluzio bat, Herri honi, jasaten ari zen egoera zauritua konpontzearen egonkortasun bat emateko gutxieneko elementu batzuk ematea. Epe ertaineko irtenbide hori hitzez hitz horrela zioen Agindu Gehigarrian jasota gelditu zen : "Estatuto honetan finkatu den erregimen autonomikoaren onarpenak ez du esan nahi, Euskal Herriari gisa historian barrena dagozkiokkeen eskubideei uko egiten zaienik, ordenamendu juridikoak erabakitzen duenaren arauera gaurkotu daitezkeelarik".

Errealitate desberdin baten lehen uneko aitopen hori azkar hasi zen berraztertze eta atzera pausoko adibide kezagarriak ezagutzen. "Café para todos" formulapean Komunitate Historikoen estatusa txikitzeke estatuari obeditzen dioten alderdien arteko akordioek, estatuko botereek demokraziaren lehen unetan lortutako akordioen berrinterpretazioa ekarri zuten, kasu batzutan oinarritzko legediaren bidea erabiliz eta beste batzutan berrinterpretazio konstituzionala. Horrela, Euskal Herriari aitortutako eskubideen etengabeko murrizketakanpainari ekin zitzaion, horren lehenengo erakusgarri izanik onartu zenetik Gernikako Estatutuak berak (euskal gizarteak berronetsia eta Gorte Nagusiek berretsia) jasaten duen EAeri aurreikusitako transferentziak ez betetzea.

Horrekin batera, nazionalismo espainoletik behin eta berriro errepikatutako diskurtsoa finkatuz joan da. Diskurtso horren arabera, euskal-burujabetzaren oraingo markoa iritsi daitekeen muga da, erabat altua baita eta gainera ez dagokio iraganeko eskubide bati, aldiz

Estatuak emandako doako zerbait da, eta ondorioz Estatuak berak moztu, mugatu eta gutxitu dezakeena bere aukeran. Ondorioz, ikuspuntu nazionalista espainol baten interesetik teoria politiko bat sortzea da helburua, oinarri hauekin : Hemen herri bakarra dago, espainola, eta egungo eredu autonomikoak Herri horrek interes publikoen kudeaketa administrazio aldetik deszentralizatzeko borondateari soilik erantzuten dio, eta ez inolako eskubide espezifikoak dagozkien beste errealitate nazionalen aitortpenari.

Diktadura frankistaren ondoren lehenengo topagune izan zenaren berrikuspen hori, alabaina, Espainiako Konstituzioaren idazkerak berak eta Gernikako Estatutuak (ez dezagun ahaztu Gorte Nagusiek berretsi zutela eta konstituzionaltasun espainolaren muinaren zati dela) espresuki jasotzen duten Eskubide Historikoen aitortpenaren errealitate gordinaren aurka doa. Aitortpen horrek aski jakina den eta dokumentatuta dagoen errealitate historiko bat konstituzio-legedira ekarri besterik ez du egiten.

Aitortpen hori gutxi balitz, ezin ahaztu daiteke Estatu espainolak Herrien Autodeterminazio-Eskubidea aitortzen duten nazioarteko akordioak berretsi dituela, bere barneko Ordenamenduari atxikiz. Eskubide horri esker beste eremu geografikoetan errealitate politiko berriak aitortu dira, paradoxikoki Euskal Herriari ukatzen zaizkiolarik, bere aplikazio-eskubidea mugatu nahi duten teoria berriekin, printzipio hori bihurtuz norberaren borondatearen arabera aplikagarri den eskubide bihurtu arte, une bakoitzeko interes politikoen arabera Estatuak garatutako ekintzen justifikazio gisa bakarrik balio duena. Eta Eskubide hori ukatzearen, Euskal Herriaren izatea bera ere ukatzeraino eraman izan du.

Hala ere, eta manipulazio horien gaineratik, zenbait kasutan kontu handiz prestatuak eta erabat lotsagabeak bestetan, Euskal Herriarekiko gure konpromiso ezbairik gabean indartzen gaituen eta bere etorkizuna erabakitze duen eskubidea berriro berresteko balio duen nazioarteko eremuko printzipio bat dago.

Estatuen lehentasuna eta haren interesak Herri eta Nazio kontzeptuen irakurketa mugatzaile batetik eta testu legalen ezagutze argi baten ezetik defendatzen dituztenek Autodeterminazio-Eskubidea birlantzerakoan nazioarte mailan potentzia kapitalista handien inperio kolonial dezimononikoak osatzen zituzten lurraldeen deskolonizazio-prozesura murriztuz haren esanahia pixkanaka murrizten joan badira, Printzipio Demokratikoaren sustraiak Konstituzio demokratiko guztiak inspiratzen dituzten printzipio horietan bertan murgiltzen dira. Ez du eskatzen aurretik Nazio bat izaterik, ez da haren aitortzarik ere. Ask



da erabaki demokratikoa. Bestalde, Konstituzio demokratiko guztien printzipio inspiratzaile izaki Ordenamendutik ondorioztatzen da, berariazko formulazio edo aitorten beharrik gabe.

Britainia Handia eta Kanada bezalako tradizio demokratiko ezberrietatik gabeko bi herrialdeetatik sortutako Printzipio hori, guztiz bat dator Eusko Alkartasunaren aurreiritziekin eta alderdi bezala sortu ginenetik defendatzen dugun euskal Herriaren erabakitzeko eskubidearekin.

Eskozia eta Galesen Demokraziari eta Botere-Itzultzeari buruzko Liburu Zuria idazteko oinarri izan zen Britainia Handian 1973.ean egin zen Kilbrandon Txostenak adierazten zuenez, komunitate bat nazio gisa hartu ahal izateko baldintza galdagarriak zeintzuk diren zehazterakoan "...epailerik hoberenak herriak berak dira, horrela, herritar-talde batek bere buruaz aparteko nazio moduan pentsatzen badu, ez da beharrezkoa ezer gehiago nazio horren izatea egiaztatzeko..."

Argudio-oinarri horretan, Kanadako Gorte Gorenen doktrinak, bere etorkizunari buruz erabakitzeko gizarte baten borondate kontzientearen ondorio demokratikoetan aurrera egiten du. Québecen mugimendu independentista garrantzitsu bat garatzen ari zelarik, nahiz eta ulertu Ordenamendu Juridikoan ez duela espresuki aitortua bere autodeterminazio-eskubidea, ez eta aldebateko sezesiorik, adierazten du Québecoko herritarren artean egindako erreferendum batek, eta sezesioari buruzko galdera argi baten aurrean emaitza positiboak lortzen badira, Kanadako Gobernuak, gehiengoan errespetuari buruzko printzipio demokratikoa jarraiki, Québecekin gai hori negoziatzeko beharra duela, eta era berean, hark nahitaez irtenbidea Kanadarekin negoziatu edo paktatu behar duela aldebateko erabakirik hartu aurretik.

Eusko Alkartasuna bat dator zalantzarik gabe oinarri demokratikokoak diren espresio horiekin, eta euskal gizartearekin datozen martxoko hauteskunderen ondoren osatuko diren Gorte Orokorretan defendatzeko konpromisoa hartzen du bere gain. Bestalde, ez da aurreko legealdietan landu ez duen konpromisoa, alderdi politiko gisa sortu zenetik dituen printzipio ideologikoekin bat baitator.

Hala ere, datozen hauteskunde orokorren ondorioz sortuko den Gobernuarekin euskal gizarteari egingo zaion kontsulta batekin amaituko den negoziazio-prozesu bat hasteko Eusko Jaurlaritzaren proposamenak berebiziko garrantzia ematen dio alderdi bezala datorren legealdian garatuko duen lanari, eta bereziki Gortetan izango duen ordezkariaren bitartez. Ohi bezala, jarrera garbia mantenduko dugu, tolesgabea, balio demokratikoak eta

bakezaleak defendatuz, giza eskubideen eta gure gizartearen gehiengoaren nahiaren errespetutik.

Epe trinko eta zaila dugu aurrean, baina programa honen Hitzaurrean aipatu dugun azken urtetako gertaeren ondorioz nahitaezkoa dena. Eta egoera honetan, Eusko Alkartasunaren zeregina eta maiz bakarka egin bada ere hamarkadatan erakutsitako Euskal Gizartearekiko bere konpromisoa, ezinbestekoak gertatzen dira.

## 2 JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK

Giza eskubideen politika nuklearrek ez lukete, teorian, hauteskunde-aurkakotasunerako gai izan beharko. Eta are gutxiago Zuzenbidezko Estatu sozial eta demokratiko bateratu bat nahi duen herrialde batean. Baina zigor-legeri espainolak bizi duen noraez errepresiboak eta, bereziki, terrorismoaren aurkako izaerakoak, herritarrekiko lehen generazioko giza eskubideak sustatzeko hainbat pauso benetan eta egiaz bultzatzeko nahitaezko konpromiso bihurtzen du. Guzti hori, galdutako bidea berreskuratzeko nahiarekin. Atzera pausoak indargabetzarren, eta horrela funtsezko eskubideen (elkartzeko eskubidea, adierazpen-askatasuneko, ideologikoa, parte hartze politikokoa...) egikaritzari inoiz egotzi behar ez ziren espazioak itzultzeko.

Giza Eskubideen sustraizko defentsa helburu duen gure posizio ideologikotik, Giza Eskubide horiek gizarte-bizitzako, politikako, ekonomiako, laneko eta kulturako esparru guztietan edonolako urraketaren salaketa eskatzen duen multzo independente eta zatiezintzat ulertuta, Espainiako estatuari premiazko eske hau egiten diogu -eta alderdi politiko gisa helburu horrekin konprometituko dugu gure ekintza politikoa- :

- Giza Eskubideei buruzko Ekintza-Plan bat aurkezteari. PSOEko Gobernuak aurreko legealdian jada hartu zuen konpromiso bat da, beste behin ere bete ez dena. Horrela eskatzen dio Amnistia Internazionalak etengabe eta arlo honetan nazioarteko betebeharrak gogoraraziz. Eusko Jaurlaritzak, aldiz, 2006ko maiatzean aurkeztu zuen Bake eta Bizikidetzeta Plana, euskal eremuan Giza Eskubideen gure Ekintza-Plana dena.
- Giza Eskubideen Ekintza-Planaren zati nuklearretako baten moduan Giza Eskubideetan Hezitzeko Plan bat aurkezteari. Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza ikasgaia bultzatzearekin ez da nahikoa. Giza eskubideetan hezitzea askoz gehiago da eta eskolatik askoz urrutiragoko ekintza-konpromisoa eskatzen du. Eusko Jaurlaritzak onartua du jadanik Bakerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzarako Euskal Plana 2007ko abenduan.
- Torturaren aurkako Ekintza-Plan bat aurkezteari. Torturarik ez dagoela dioen bertsio ofizialaren aurrean, iturri erabat fidagarriek eta oraintsuko gertaera izugarriek horiek existitzen dutela ziurtatzen dute ez bairik gabe, eta ez anekdota edo bakarkako kasu bezala. Torturarik ez balego ere -eta ez da hori kasua- demokrazia orok prebentzioko

estandarrak erabat operatiboak edukitzera behartuta dago, eta horrek Espainaren kasuan, suposatu beharko luke :

- a. Atxilotze-zentro guztietan orokorki grabatzeko kamerak ipintzea.
  - b. Atxilotetatan auzitegiko protokoloak aldatzea eta egiaz ezartzea, konfiantzako auzitegi-medikuen parte hartze zabalarekin.
  - c. Litezkeen torturen epaiketaren eta ikerketaren aurrean jarrera errotik aldatzea. Zigorgabetasuna da faktore kriminologiko nagusia.
  - d. Atxilotze- eta atxikitze-zentroetan eta espetxeetan bertaratzea zilegitzen duen borondatezko protokoloa ezartzea. 2007ko ekainetik Espainiako estatua ez da betetzen ari aipatu protokoloak finkatzen dituen betebeharrak, edonola ere egitura federala behar luketen babes nazionalako bideak sortzea suposatzen dutenak.
- Eta, azkenik, sare juridiko-zapaltzailea desegingo duen eta honako lege-tresnen legeria sakonki aldatzea helburuen artean edukiko duen eskubide zibiletan eta politikoetan Ekintza-Plan bat aurkezteari :
- a) Zigor-legeak funtsez aldatzea
    - 1.- Taldeak beldurtzeko mehatxuen delitua indargabetzea erabat zehaztu gabekoa delako (Zigor Kodearen 170. artikulua indargabetzea).
    - 2.- Talde terroristatzat zer ulertu behar den juridikoki mugatzea (Zigor Kodearen 515.2 artikulua aldatzea) eta legez kontrako elkartze terroristagatiko zigorra berrikustea (Zigor Kodearen 516. artikulua aldatzea).
    - 3.- 571-579 artikuluen multzoan jasotako suposamenduak eta zigorrak berrikustea eta egokitzea.
      - 3.1.- Kalte handiak edo suteak eragiten dituzten delitu terrorista aldatzea, pertsonen bizitza edo segurtasuna arriskuan jartzea eranstea eskatuz (Zigor Kodearen 571. artikulua aldatzea).

- 3.2.- 574. artikulua indargabetzea erabat zehaztugabea delako.
- 3.3.- Talde terroristen finantzaketari buruzko aldaketa eta mota zehaztea (Zigor Kodearen 575. artikulua aldatzea).
- 3.4.- Terrorismoarekiko elkarlan delitua aldatzea, zigorra murriztuz eta zehaztugabeko klausula orokorrak kenduz (Zigor Kodearen 576. artikulua aldatzea).
- 3.5.- Terrorismo indibiduala deritzon tipoa indargabetzea, terrorismoaren aurkako legearen muin gogorrean materialki larritasun gutxiagokoak diren eta kualitatiboki baliokideak ez diren jarrerak jasotzeagatik (Zigor Kodearen 577. artikulua indargabetzea).
- 3.6.- Terrorismo-apologiaren delitua Aldatzea eta zehaztea (Zigor Kodearen 578. artikulua indargabetzea).

b) Espetxe-erreformak.

- 1.- Terrorismoko delituetarako zigorra ezartzeko erregela bereziak indargabetzea (Zigor Kodearen 76.1.d/78.2 artikulua).
- 2.- Terrorismoko delituen ondorioz preso dagoenak hirugarren maila lortzeko salbuespenezko traben oinarria indargabetzea (Zigor Kodearen 36.2/78.3 eta Espetxeetako Lege Organiko Orokorren 72.6 artikulua).
- 3.- Terrorismoko delituen ondorioz preso dagoenak baldintzapeko askatasuna lortzeko salbuespenezko traben oinarria indargabetzea (Zigor Kodearen 78.3/90.1/91.1 eta 91.2/93.2 eta 3. artikulua).
- 4.- Terrorismoko delituetako presoak eta aurreneurritzko presoak salbuespenez lehen graduko departamentuetara klasifikatu/deribatu ahal izatea indargabetzea (Espetxeetako Erregelamenduaren 102.5.c artikulua indargabetzea).
- 5.- Dispertsio politika egiaz desaktibatzea.

c) Auzibide-erreformak, adingabeak eta alderdien legea

- 1.- Espetxeratuen Zaintzako Epaitegia desagertzea (Botere Judizialaren Lege Organikoko 62. artikulua eta hurrengoak).
- 2.- Helduentzako nahiz adingabeentzako terrorismoko delituak epaitzeko eta instruitzeko organo zentralizatu gisa Audientzia Nazionala desagertzea (1985ko Botere Judizialaren Lege Organikoko 62. artikulua eta hurrengoak).
- 3.- Adingabeen zigor-legerian terrorismoko delituen salbuespeneko erregimenak indargabetzea (Adingabeen Erantzukizun Penalari buruzko Legearen 1.4, 7.1.ñ eta 10.2 artikulua).
- 4.- Terrorismoko delituen gaietan atxilotze-epeak mugatzea (Prozedura Kriminalaren Legeko 520 bis artikulua zati bat indargabetzea -2. paragrafoa-).
- 5.- Inkomunikazio-erregimena indargabetzea (Prozedura Kriminalaren Legeko 520 bis.2/527 artikulua).
- 6.- Alderdi Politikoen Lege Organikoa indargabetzea, edo kasua balitz, 9. artikulua zati bat indargabetzea eta aldatzea.

## 3 DATORREN LEGEALDIRAKO PROGRAMA-PROPOSAMENA

### 3.1 POLITIKAK GIZARTE GAIETAN

#### 3.1.1 LAN-MUNDURATZEA, ENPLEGUA ETA SOLIDARITATEA

Enpleguaren egoerari dagokionean, Estatu mailan nahiz bereziki EHAEn eta Nafarroan, kuantitatiboki aurrez ezagutu ez genituen baldintzak ditugu. Hala ere, ikuspuntu kualitatibotik datuak ez dira hain pozgarriak. Denborazkotasan tasa altuak, ezbeharrek, BPGean soldatek duten geroz eta pisu txikiagoak, atzerapena erakusten dute, edo gutxienez geldiduna, lan-merkatuko kalitatearen adierazleetan. EHAek erlatiboki Estatu osoarena baino posizio hobea badu ere, batez ere gai honetan Eusko Jaurlaritzak bere baliabide gehigarriekin garatu dituen politikei esker, etorkizunean adierazle horiek hobetzeko egin behar dugun ahalegin handia aitortu behar dugu.

Aldiz, Gernikako Estatutuan eta Nafarroako Hobeagotzeko Legean finkatutako suposamenduak argien bete ez diren eskumenen aurrean gaude, lan-harremanei eta gizarte-babesari dagozkienak hain zuzen. Kasu batzutan Gobernu Zentralak gai horietan sakontzeko duen borondaterik ezagatik; bestetan, Nafarroan, Gobernu desberdinen jarrera adeitsuagatik, argi eta garbi Hobeagotzeko Legeak finkatutako gaitasunei uko eginaz, batez ere finantzen ikuspuntutik.

Herri baten garapenerako eta gizarte kohesionatu eta solidario bat sendotzeko hain garrantzitsuak diren aspektuak, enplegurako politika aktiboak, lanbide heziketa, etengabeko formazioa (oinarrizko tresnak euskal herritarren kualifikazioari eta enplegotasunari begira eta haien ezagupenak geroz eta konpetitiboagoa den inguru ekonomiko batetara egokitzeko), langabeziagatiko prestazioen kudeaketa edo Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa esaterako, baita laneko ikuskatzailletza ere, behin eta berriro ukatu izan zaizkio zenbait kasutan, edo eskumenen ikuspuntutik baldintza onartezinetan planteatu izan zaizkio bestetan.

Une hauetan aldaketa garaia bizi dugu, oraingo zuzenbide-esparrua ordezkatzeko duen Gobernu Zentralarekiko harreman-esparru berri bat lortzeko dagoen beharragatik. Gizarte politikak eta ekonomikoak kudeatzeko EHAEn eta Nafarroaren gaitasuna egiaz bermatuko duen esparru berri bat. Politika horiek enpleguari eta gizarte-babesari dagokionean haztea bultzatuko lukete, eta horien baldintzak hobetzea lan-bizitza eta familia-bizitza bateratzea

bezalako oinarrizko aspektuetan, egonkortasuna enpleguan edo ezbeharretan, eta guzti hori gizartearen ordezkariak duten agente guztiekin elkarlanean politika sektorialak zehaztea ahalbidetuko duten lan harremanen esparru propio batean.

Jarduera-eremu horiek duten garrantziaren jabe izanik, baita helburu horiek lortzeko beharrezkoak diren neurri zehatzak hartzeak, formazioan eta ezagutzan oinarritutako lehiakortasun handiko sare ekonomiko bat bilatzeak, solidarioa sektore desfaboratuenekin eta gizarte-esklusio arrisku handia dutenekin, irekia eta integratzailea inmigrazioarekin, Eusko Alkartasunak, jarrera aurrerakoi eta solidario batetik, konpromiso hauek hartzen ditu beregain :

- Lan-harremanetako eta gizarte-babeserako esparru berri bat.
- Esparru berria gauzatze zain, eta Gernikako Estatutua eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeagotzeko Legearen babespean, honako gaietan eskumenak bultzatu
  - enplegu politika aktiboak eta pasiboak, bi autonomia erkidegoen esparruan bildutako kuotak transferituz eta zergekin finantzaturako zatian Kupoaren formula aplikatuz.
  - Laneko ikuskatzaila.
  - Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa.

EAREN helburua enplegu osoko egoera bat kontsolidatzea da, esparru lehiakor batetan, eta hura kalitatezkoa eta segurua izan dadila. Horretarako, EAK honako hauek lortzeko legezko neurriak defendatuko ditu :

a) Kalitate eta segurtasun gaietan :

- Enplegu-kolokatasuna murriztea, lanaldi osorako edo/eta partzialerako kontratu finkoak sustatuz, horrek lan-bizitza eta familia-bizitza bateratzea ahalbidetzen duenean eta gazteei formazioari uko egin gabe lan-merkaturatzerara ahalbidetzen dienean.
- Administrazioak, nahiz horiek partaide gehien dituzten enpresek, sozietate publikoek eta erakunde eta fundazioek aldi baterako Laneko Enpresen bitartez langileak kontratatzea galaraztea.



- Lanbide arteko gutxieneko soldata Europako Batasuneko herrialde garatueneren erosahaltenaren unitate baliokidetan, kopuru baliokidetara igotzea.
- Laneko ezbeharrak murriztea, arriskuen prebentziorako sistemak ezarriz, batez ere enpresa txiki eta ertainetan, gizartearen eta bereziki langileen, enpresarien eta zuzendarien formazioa eta sentsibilizazioa sustatuz, Ikuskatzailatza gaietan baliabideak areagotuz, gizarte eremuan arau hausteei buruzko zigorrak gaurkotuz, Administrazioarekin kontratatzeko baldintzen pleguetan izaera soziala duten klausulak sartuz laneko arriskuen prebentziorako enpresen konpromisoa bultzatuz, gertatzen diren ezbeharren arrazoen ikerketa sustatuz, laneko medikuntzan espezializatuen kopurua handituz, eta kanpoko prebentzio-zerbitzuen jarduna indartuz.

**b) PAREKATZE ETA AUKERA-BERDINTASUN GAIETAN:**

- Lan berdina egiten duten pertsonen lan baldintzak berdinak izan daitezela ziurtatzera bideratutako neurriak hartzea; generoagatik gertatzen diren desberdintasunekin amaituz eta subkontratazioa espezializazio-arrazoiak mugatuz.
- Gizon eta emakumeen artean aukera berdintasuna eta soldaten homologazioa bultzatzea lan-bizitzako aspektu guztietan (soldata, sustapena, laneko baldintzak, lana lortzerakoan,...) lan-bizitza eta familia-bizitza bateratzeko tresnen bidez, lan mundura itzultzeko laguntzekin, eta ikuskatze eta zigortze ekintzekin.
- Arraza eta kultura aniztasunari errespetua bermatzea lan munduan, gertatzen diren diskriminazioei aurre eginaz.
- Pertsona ezinduentzako lanpostuak gordetzeari dagokionean indarreko araudiak bete daitezela zaintzea, horretarako beharrezko egokitzapenak egin daitezela galdatuz, bai enpresa publikoetan nola pribatuetan.
- Ekonomia sozialeko edozein enpresatan langileen partaidetza bultzatzea (Kooperatibak eta SALES direlakoak).
- Hirugarren enpresen bitartez kontratatutako, edo enpresa berak aldi baterako kontratatutako langileen eskubideak parekatzea baldin eta beraien lana enpresa berdinentzako edo enpresa-multzo batentzako egiten badute enpresa edo multzo horrekin lan-harremana azkenekoz amaitu zenetik urte bete baino gutxiagoko epean.

Antzinasun-eskubidea ez sortzeko eta ez ordaintzeko enpresa askok daramaten praktika ekidin nahi da, kontratazioa bitarteko enpresen bitartez, aldi Baterako Laneko Enpresen bitartez edo subkontratazioaren bitartez egiten baitituzte kontratuak; o zuzenean eginaz, lan-harremana amaitzen baitute ondoren kontratu berri bat egiteko, horrela antzinasuna jasotzeko eskubidea sortzea galaraziz.

- Autonomoak, etxeko langileak eta nekazaritzako langileak Erregimen Orokorreko langileen baldintzatarara parekatzea lanerako ezintasun iragankorra, kotizazio-taula... gaietan.
- Zeinu-mintzaira egiaz aitortzea, entzuteko urritasuna duten pertsonen benetako integrazioa ahalbidetuz.

c) Enplegu-sorkuntzari dagokionean :

Enplegu osoko egoera sendotzeko aipatu helburuak nahitaez enplegu berria sortzea eskatzen du. Horretarako, Eusko Alkartasunak Estatu guztiak honako politika aktiboak ezartzea proposatzen du :

- Enpresa berrien sorkuntza bultzatu, batez ere jakintza, berrikuntza eta teknologia berrien arloan, eta gizarte zerbitzuetan eta ezinduen laguntzan enplegu-sorgune berriak arakatu.
- Gizarteratzeko zailtasun gehien dituzten taldeetako gutxieneko langile kopuruaz osatutako gizarteratzeko enpresen sorrera bultzatu, era berean kolektibo gutxietsienei edo gizarte-esklusio arriskuan daudenei zuzendutako gizarteratzeko programak garatuz.
- Enpresen mintegien bitartez, enpresa berriak sortzeko biderapenak erraztuz, doako aholkularitza teknikoa eskainiz, diru-laguntzen politika egoki batekin... enpresa berrien sorrera bultzatu.
- Kolektibo jakin batzuen kontratazioa diruz lagundu, besteak beste : lehenengo enplegu-eskatzailak, luzaroko langabeak, emakumeak, 45 urtetik gorakoak, ezinduak, ea...
- Soldata txikienen karga sozialak murriztu kontratazioa sustatzeko eta ezkutuko ekonomia azalerratu dadin esku-laneko zerbitzu trinkoen gaineko BEZa arindu.

- Errenta soziala jasotzen dutenen enplegua suspertuko duten bideak sartu, ezkutuko lanean, kalitate gutxikoan eta bermerik gabekoan modu kronifikatuan finkatzeko aukerak gutxituz.

Ekonomia mistoko enpresa-formulen erabilerak tresna egokia suposatzen du, enplegu-sorkuntza errazten duena. Aldi berean, herriaren garapen ekonomiko eta sozialarekiko langileak konpromisoa hartzea suposatzen du, langilearen garapen integrala enpresarenarekin batera haztea ahalbidetzen baitu. Horregatik, enpresen kudeaketan, jabetzan eta administrazio-organoetan langileen partaidetza bultzatu nahi ditugu.

Hala ere, neurri horiek bakarrik badoaz ez dira nahikoak lan egiten duten biztanleentzako kalitate-baldintza nahikoan enplegu osoaren eredia bermatzeko.

Lan-merkatura hobeago eta gehiago iristeaz gain egonkortasuna bermatzeko, lan-baldintzen hobekuntza bermatzeko, errentaren hazkunde eutsia bermatzeko, eta joera deslokalizatzaile eta globalizatzaileen ondorioko sektore helduetan berregituratze prozesuek ekarritako lan galeraren ondorioz eratorritako birlaneratzeko gaitasuna bermatzeko, berebiziko garrantzia eman behar diogu formazioari, langilea merkatuak eskatzen dituen modu eta prestakuntza berrira egokituz. Horretarako EAK enplegarritasuna eta lanbide sustaketa hobetzera bideratutako politika aktibo hauek proposatzen ditu :

- Formazioa enplegarritasun handiagoko sektoretaruntz bideratu.
- Lanbideratzeko zailtasun gehien dituzten kolektiboetara zuzendutako lanerako prestakuntza areagotu, praktikaaldiak ezarriz.
- Enplegu-eskatzailerako bakoitzari egokitutako orientazio zerbitzua eskaini, jarraipena eginaz.
- Lanbide-sustapena errazteko eta merkatuko eskaera berriei egokitzera bideratutako formazioko eta birziklatzeko ikastaroak sustatu.
- Curriculumaren edukiak egokituz eta titulazio profesional berriak ezarriz formazio-eskaintza gaurkotzea, produkzio-sarearen eskaeren ondorioz merkatuan sortzen diren aukera berriei aurre egitearren.

Funtsezkoa iruditzen zaigu erkidego mailaren eta maila horretan finkatzen diren erabakien errespetutik kudeatutako etengabeko prestakuntza ezartzea, akordioaren arabera lurralde mailan ordaintzen diren formazioko kuotekin finantzatzuz, eta noski, beti ere agente

sozioekonomikoen profesio arteko akordiotik. Lan egiten duten biztanleriak bere gaitasunak etengabe berritu ditzan bermatzeko bide bakarra da, horrela enplegu-kalitatean galerarik jasan gabe merkatuak finkatzen dituen beharrei egokituz.

Azkenik, Eusko Alkartasunaren iritziz eraginkortasun ekonomiko handiko ekonomia lehiakorra lortzearen helburuak bat etorri behar du justizia sozialarekin, belaunaldi arteko solidaritatearekin, kohesio soziala bilatzearekin eta ongizatearen estatua mantentzearekin, horiek guztiak Europako sozialdemokraziaren tradizioen eta ohituren ikur direlarik. Horregatik, justizia sozialaren hedadura zaindu ez duen eredu neoliberal batetik eratorritako zenbait tendentzia kezkarri aurre egitea eta trabak jartzea proposatzen du EAK, esaterako, lan-merkatuaren geroz eta prekarizazio handiagoa, gastu sozialari eustera bideratutako politiken hedatze kezkarria, politika birbanatzaileen ahuldura, eta barne-produktu gordinarekiko soldaten ahalmenaren galera.

Gainera, gizarte-babesak gure inguruko gizarte guztiak jasaten ari diren gizarte aldaketatik eratorritako arazo berrien jakitun izan behar du, bereziki biztanleriaren zahartzapen progresiboari, familia egitura berrien sorkuntzari eta ezarkuntzari eta enplegu eta langabezi era berriei dagokienean.

Horregatik, Eusko Alkartasunak

- epe luzean gizarte segurantzako sistema publikoa mantentzea bermatuko duten neurriak bultzatuko ditu. Soldatei etorkizuna bermatzea geroz eta zailago egiten zaien ekonomia batean finantzaketa-era bakar gisa gizarte segurantzaren finantzaketa indartuko duten neurriak.
- Langabezia estaltzeko enpleguaren geroz eta mugikortasun handiagoaren ondorioz sortutako behar berriei erantzuna emango dioten ereduak bultzatuko ditu. Enplegu edo lanpostu berean iraupena bermatzea egunetik egunera zailagoa izanik, enplegu-trantsizio unetan edo egoeratan benetako beharrak estaliko dituzten formulak bilatzea ezinbesteko beharra da. Bitarteko geldialdi egoera horiek familiaren bizitza-eraren egonkortasuna baldintza dezaten ekidin behar dugu.
- Era berean, lan egiten duten biztanleen artean pentsio osagarriak bultzatuko ditu, guretzat euskarri nagusia den gizarte segurantzaren uko egin ezinezko sistema publikoaren osagarri gisa, horretarako, enplegurako sistema kolektiboak ezarriz, negoziazio kolektiboa izango delarik ardatz eragilea. Horrek, erretiroan bizitza-maila mantendu ahal izatea bermatuko du.

### 3.1.2 GIZARTE-POLITIKA ETA GIZARTE ONGIZATEKOA

Eusko Alkartasunaren gizarte-politika ongizatezko, solidaritatezko, justizia sozialeko eta sortzen dugun aberastasunaren bidezko banaketako Euskadi bat eraikitza bideratuta dago.

Eusko Alkartasunatik, bakoitzak bere politika- edo erakunde-arduraren esparruan, gure ustez ezin utzizkoak eta gizarte-politika aurrerakoien abiapuntu diren eskubide sozialak defendatzeko konpromisoa hartzen dugu. Ongizatearen Estatutu ereduak garatzeko konpromisoa hartu dugu alderdi politiko bezala eta, ondorioz, eskubide sozialak defendatzeko eta babesteko, guztion eta guztiontzako gizarte bat eraikitza oinarritzko euskarri utziezinak direla baiteritzogu.

Ongizatearen Estatuak hiritarren eskubideak eta politikoak bermatzeaz gain, batez ere gizarte-eskubideak bermatzen ditu, zehazki ondasun materialen babesa eta zaintza, errenten bermeak, familiaren babesa zentzu zabalenean, osasunarena, gizarteko gertakizunak (gaixotasuna, alarguntasuna, langabezia, etab.), hezkuntzaren babesa, etxebizitza-eskubidea, pertsona kontsumitzaileen eskubideak, etab.

Gai horri aurre egiterakoan funtsezkoa da gizarte-babesaren esparruak edo mailak zehaztea gizarte-eskubideak babesteko sistema bat finkatzearen.

Gizarte babesekeo estatistiken Europako sistemaren (SEEPROS) metodologiaren arabera, gizarte-babesaren esparruak honako hauek dira :

- Baliaezintasuna – zahartzaroa – langabezia (lan eta gizarte segurantzaren sistema).
- Gaixotasuna – osasuna (sistema sanitarioa).
- Familia – gazteria (familia babesteko sistema).
- Etxebizitza (etxebizitza babesteko sistema).
- Gizarte-bazterkeria – ezgaitasuna (errentak bermatzeko sistema).

Gizartearen behar horiek premiazkoztat eta Gizarte-Babesekeo Sistemak abian jarri, izaera soziala, kulturala edo sexu-aukerakoa edozein dela eta Herri Administrazioak babestu beharreko eskubide unibertsaltzat jotzen dira.

Ondorioz, prestazio-sistemak eta sektorialak errentak birbanatzeko, berdintasunerako eta gizarteratzeko tresna bihurtzen dira. Eredu horren abiapuntua hiritarren eskubideak, politikoak eta gizartearenak "elkarren artean mendekotasuna duten eta banandu ezinak" diren uste sendoa da.

Oinarri orokorren horrekin, gai honetan gure proposamenak zehaztuko ditugu :

a) Eskubideen katalogo bat onartzea. Posizionamendu aurrerakoi batetik, Herri Administrazioari exijitu dakizkiokeen eskubide subjektiboen eta unibertsalen katalogo bat onartu dadila galdatuko dugu :

- Hezkuntza jasotzeko eskubidea : 0-3 urte arte bitartetik unibertsitateraino.
- Osasun-eskubidea : gaixotasun babesgarrien katalogoa zabaldu dadila.
- Lana edo errenta sozialak izateko eskubidea: lanaren kalitatea eta errenta sozialen orokorpena lanekoak falta direnean.
- Gizarte segurantzza duina izateko eskubidea : pobrezia-mugatik gaindiko pentsioak, batez ere alarguntasunekoak.
- Etxebizitza-eskubidea, gizarte-errentan eraginaz.
- Errenta-bermerako eskubidea eta gizartean barneratzekoa : mendekotasuna duten pertsonen arretari, genero-indarkeriari, etorkinak abegitzeari eta gizartean barneratzeari, drogamenpekotasunari, arrisku egoeran dauden gazteei, guraso bakarreko familiei, errentadunei, etab... lehentasuna emanaz.
- Familia-eskubideak : diru laguntza ekonomikoak eta adiskidetze-zerbitzuak (haurrak, gazteria, familia).

Eskubide horiek defendatzea eta Babeserako eta Gizarte Ongizateko Sistema eraikitzea Europako eta Euskal Herriko sozialdemokraziaren balioak dira, EA bertan egonik. Hortik eraikitzen da gure Gizarte-Politika, aurrerakoia, solidarioa eta justizia sozialekoa.

b) Justizia sozialeko eta gizarte ongizaterako sistema publiko bat ziurtatzea.

Gizarte-politikaren helburu nagusiari dagokionean, gure eskumenen barne gizarte-babeserako gastuan Europako bataz bestekoarekin dagoen defizita zuzendu beharko litzateke.

Espainiako estatua gobernatu izan duten alderdiek gizarte ongizateko hondar-eredu bat garatu dute, gizarte-eskubideak baztertzan dituen eta gizarte-babesa erabiltzaileak estigmatizatzen dituen gizarte-laguntza bihurtzen duena.

Horrela, Espainiako estatuak gizarte-politikan duen gastua BPGren %20ekoa da, EBn aldiz %28koa delarik. Espainiakoa Europar Batasuneko baxuenetakoa da (EB 15).

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoari dagokionean, gizarte-babeseko politika gaur egun estatuaren esku hartzeari gehiegi lotua dago eta Gizarte Segurantzari eta INEMeko politika aktiboen eta pasiboen transferitu gabeko eskumenen ondorioak jasaten ditu. Beraz, gizarte-babesean gastatzen denaren %52,8 jada Gizarte Segurantzari lotua dator eta %9,1 INEMeko politika aktiboen eta pasiboen politikari lotua, hau da, gizarte-babeseko politikan gastatzen denaren %61 gaur egun Estatuaren menpe dago.

Hala ere, Euskal Herriak, EUSTATen azkeneko datuen arabera, guztira 7.230 milioi euro bideratu zituen Gizarte-Babeseko Sistemarako : osasuna, familia, ezgaituak, hirugarren adina, etxebizitza eta gizarte-bazterkeria. Gizarte-politikan egiten den ahalegin hau dela eta, Euskal Herriak biztanle bakoitzeko 5.079 € ordaintzen ditu, eta Espainiako estatuak aldiz 4.087, hau da %21,7ko aldea dago bata eta bestearen artean.

Egiaztatutako errealitate horretatik ulertzen dugu gizarte-politikaren ikuspuntu aurrerakoi batetik honako erantzun sektorialeiei lehentasunez heldu behar zaiela :

1) Osasun-babesa.

Espainiak Europa osoko osasun-gastu baxuena du, Grezia eta Portugalen atzetik (BPGdaren %5,8, Europako bataz bestekoa %7,2 delarik).

Babestutako jardueren katalogoa zabaltzea beharrezkoa da, aho guztiaren osasuna sartuz, ikusmenarena eta entzumenarena, mendekotasuna duten pertsonentzako eta gaixotasun berriak tratatzeko zerbitzu berriak sortu, Alzheimer unitateak sortuz, espazio sozio-sanitarioa garatuz, etab.

## 2) Familiei babesa.

Espanian familia-politikak du gastu baxuena Europako Batasuneko BPGdari dagokionean, %0,5, Batasuneko bataz bestekoa %2,1 izanik.

PPko eta PSOEko gobernuek ez dute gaitasunik izan familia babesteko sistema bat sortzeko. Neuri bakarti eta oportunistak dira nagusi (2.500€ seme-alaba bakoitzeko, haur-txekea), Europar Batasunean ohikoak diren familia laguntzeko sistema integralak -jaiotzatik emantzipazioa arteko laguntza ekonomiko zuzenak, lan-bizitza eta familia-bizitza bateratzeko laguntzak, seme-alabak zaintzeko eszedentziak edo lanordu murrizketa-sortzeari uko eginaz, eta batez ere, 0-3 bitarteko adingabeentzat hezkuntza sare asistentziala sortzeaz ahaztu dira.

0-3 adin tartean haur eskolen estalduradi dagokionean E.B.ko mailarik baxuena du Espainiako estatuak : 0-3 bitarteko adingabe espainolen %8ak bakarrik du tokia titularitate publikoko ikastetxeetan (Danimarkan %44ak, Suedian %40ak, Frantzian %23ak). Espainian 430.000 plazen defizita dago.

Euskadin estaldura eta eskolatzeko mailak Europako herrialde aurreratuenen pare jartzen gaituzte : %52,5eko estaldura lau hilabete eta hiru urte bitarteko adingabeentzat.

Familiak du zeregin nagusia, bai oro har herritarrentzat baita diskurtso politikoan ere (herritarren %78ak uste du familia bere bizitzako elementurik garrantzitsuena dela). Baina Estatuaren ekarpenak eta laguntzak minimoak dira.

## 3) Etxebizitza-eskuratzeari babesa.

Espania da gizarte-laguntzako etxebizitzan gastu baxuena duena Europako Batasuneko BPGdari dagokionean, %0,2, Batasuneko bataz bestekoa %0,6 izanik. Horren aurrean, alokairuzko eta jabetzako etxebizitza sozialen aldeko esku hartze erasokorra jasoko duen Etxebizitzaren Lege bat Euskal Autonomia Erkidegoan onartzeko konpromisoa hartzen dugu, eta Gorteetara eredu hau eramango dugu Estatu mailan ezar dadin.

Alokairuzko etxebizitza sozialen parke bat sortu behar da, Estatuak, Autonomia Erkidegoek, Udalek... bultzatua, oro har biztanleei eta bereziki gazteei eta baliabide eskaseko pertsonen alojamendua eta etxebizitza ahalbidetzeko.



4) Gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka.

Espania da gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokan gastu baxuena duena Europako Batasuneko BPGdari dagokionean, %0,45 bideratzen du horretarako, Batasuneko bataz bestekoa %0,39 izanik.

Gizarte-bazterkeria arriskuan dauden herritarrei pobrezia-mugatik gora dagoen oinarritzko errenta bermatuko dieten prestazio-politikak abian jarri beharra dago. Beraz, ondorengo prestazioak eta programak martxan jarri behar dira :

Beharrean dauden pertsonentzako hiritar-eskubide subjektibo gisa Oinarritzko Errenta orokorra, Euskal Herriko erredua jarraituz (dei-efektua ekidinaz komunitate batek babes horri positiboki erantzuten dionean). Babesa errenta baxuenei orokortzea.

Etxebizitza-gehigarria bizitoki-etxebizitza gaia ziurtatua ez duten eta gizarteratze prozesuan daudenentzat (gizarteratzeko hitzarmenak).

Formazio eta enplegu politika aktiboak, Euskal Herriko Gizarte eta Lanerako Inklusioaren erredua jarraituz, gizarte eta lanerako bazterkeria egoeran dauden herritarrei lan-merkatuaren eta gizartearen aurrean aukera berdintasuna ahalbidetuz : Auzolan programa, gizarteratzeko enpresen sustaketa, etab.

Oinarritzko Errentan Euskal Herriak kontzeptu beragatik Estatuak gastatzen duen guztia baino %34,7etik gorako gastua du. Eta GLL kontzeptuan Estatuak gastatzen duena baino %60 baino gehiago gastatzen dugu. Kontuan hartu behar da Euskadik biztanleriaren %5,3 duela, Estatuko pobrezia-indize baxuenekin, biztanleriaren %3,7, Espainiako bataz bestekoa %7 izanik, eta Europakoa %5.

5) Biziraupeneko prestazioei babesa (alarguntasuna, ezintasuna, zahartzaroa).

Espania da kontzeptu honetan gastu baxuenetakoa duena Europako Batasuneko BPGdari dagokionean, %0,8 bideratzen du horretarako, Batasuneko bataz bestekoa %1,3 izanik. Gaur egungo alarguntzako pentsioak pobrezia-muga hertsitik behera daude, aldi berean biztanleriaren zahartzeak gastuaren defizita areagotzea ekarri duelarik.

Eusko Alkartasunatik pentsio duinak exijitzen ditugu, pobrezia-mugatik gorakoak (900 € hileko). Gaur egun alarguntzako bataz besteko pentsioa ez da 600 €-rotara iristen, eta kotizazio gabeko pentsioak hileko 260 eta 300 €-uro bitartean daude. Hain zuzen, pentsioak

dira zaharren bizitza kalitatea zehazten dutenak. Zahartzaroan gizarte-gastuak duen defizita (BPGaren %8,3, EBrena %10,9koa izanik) pentsioen estaldura baxuagatik dator.

Era berean, ezinbestekoa da gizarte-aurreikuspen osagarriko planak abian jartzea, EAEn martxan jarritakoen antzekoak, kontuan hartuta pentsioen sistema publikoaren mantenua zalantzaezina, funtsezkoa eta ukaezina dela. Plan horiei esker pentsio osagarriak orokortu eta demokratizatu ahalko dira, gure herriko langileen gehiengora zabalduz, langileentzat, pentsiodunentzat eta haien familientzat gizarte-ongizate maila bermatuz.

#### 6) Langabeziako prestazioei babesia.

I.N.E.M.ek eta B.A.I.k emandako datuen arabera, Espainian dauden langabetuen erdiak baino gehiagok ez du inolako estaldurarik langabeziaren aurrean, eta dutenek ekarpen baxuak dituzte, batez ere asistentzia-prestazioak.

Bataz besteko errentaren %60an kokatutako L.G.S. bat aldarrikatzen dugu, Europako herrialde aurreratuenetan aurreikusten denaren parekoa. Luzaroko langabeak babestuko dituen errenten bermea eta lan- eta gizarte-integrazioko politika aktiboak bideratu daitezela. Ez dezagun ahaztu gaur egun Oinarrizko Errenta gaintzen duen edozein pentsiok gure Erkidegoan osagarri ekonomiko bat jasotzen duela defizit hori zuzentzeko, baina behin betiko soluzioak eskumenaren ardura duenetik etorri behar du.

#### 7) Hirugarren adinari laguntzeko zerbitzuak.

Gure ustez garrantzitsua da etxez etxeko zerbitzuen gaian esku hartzea, hau da, adineko pertsonen eta nolabaiteko dependentsia maila dutenen etxez etxeko arreta lehenetsi eta orokortzea.

Espainiako estatuak, beste behin, adinekoentzako etxez etxeko zerbitzuen estaldura-maila baxuena du, 65 urtetik gorakoen %1,5 (%24 Danimarkan, %17 Suedian, %5,52 Erresuma Batuan). Euskal Herrian egoera desberdina bada ere, 65 urtetik gorakoei eskaintzen zaien etxez etxeko arreta %4,5a baita, 80 urtetik gorakoen kasuan %16ra iritsiz, helburua herrialde aurreratuenen arreta-portzentaietara iristea dela deritzogu. 65 urtetik goragoko biztanleriaren %4,5etik %5era pasatzea, eta arreta gehiago eskaintzea, asteen 4 ordutatik 9 ordutara igoz (Geriatría Sozietatetik egindako proposamena). Ezin ahaztu dezakegu, gainera, zerbitzu hau garatzeak enplegu-sorkuntza handia suposatuko zukeela.

Alderdi gisa adineko pertsonak beren ingurune naturalean mantentzearen aldekoak bagara ere, ezin ahaztu dezakegu egoitzak eta eguneko zentroak beharrezkoak direla adineko

pertsonei arreta egokia emateko nahitaezko osagarri bezala. Gai honetan proposatzen dugun helburua, beste behin, E.B.eko batz besteko ratioetara iristearena da, baliatuen nahiz mendekotasuna dutenen kasuan.

Ezinbestekoa iruditzen zaigu gizarte-politika garatzaile eta unibertsalistaren alde egitea, Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialistak finkatu duten eredu asistentzialistatik aldentuz. Eredu horrek giza-eskubideak ez ditu kontuan hartzen, eta Gizarte-Politika gizarte-laguntza bihurtzen du, horrek erabiltzaileak estigmatizatu egiten dituelarik, herritarren aurrean behartsu kategoriara behertzen baititu.

- c) XXI. mendean sortzen ari diren bestelako beharrak : Mendekotasuna, inmigrazioa eta guraso bakarreko familiak

Horiek lirateke gure oinarri-lerroak gizarte-babesaren arloan, baina, egun, bizi garen gizarteak gizarte-zerbitzu eta prestazio zabalak eskatzen dituen gizarte-bilakaera egoera lortu du. Prestazio-behar horiek batez ere langabeziari, adineko pertsonei, mendekotasuna dutenei eta etorkinei buruzkoak dira.

Biztanleriaren zahartzapenak, mendekotasuna duten pertsonak geroz eta gehiago izateak, eta inmigrazioaren fenomenoak prestazio ekonomiko eta zerbitzu espezializatu gehiago eskatzen dituzte.

Aberastasuna modu desberdinean banatua egotearen ondorioz, eta herritze eta globalizazio bidean dauden herrietan dagoen enplegu-ezaren ondorioz, inmigrazioaren fenomeno soziala areagotzen ari da. Garatutako herrialdeek trabak jartzen ari dira beraien herrialdeetara garatze bidean dauden lurraldeetako herritarrak joan ez daitezen. Historian zehar herri emigratzailea izan da euskalduna, arazo politikoak eta politikoak bitarte, eta euskaldunak ia beti eskuzabaltasunez hartuak izan dira abegi-herrialdeetan. Horregatik, Eusko Alkartasunak lana eta beraientzako eta haien familientzako etorkizun hobeago baten bila datozen munduko beste tokietako biztanleei solidaritatea adierazten die, aldi berean inmigratioari munduko herrialde aberatsak jartzen ari zaizkien trabak gaitzesten dituelarik, batez ere traba horiek EBko herrialdeetan ipintzen direnean.

Zentzu honetan, Eusko Alkartasunak lanean txertatzeko zailtasunak dituzten sektore horietan ekintza sustatzearen aldeko apustua egiten du, horretarako errealitate eta behar bakoitzari egokitutako metodologiak prestatu beharko direlarik, ahal den heinean inizatibaren izaera enpresariala galdu gabe, aukera hau gizarte ongizateko sistemaren menpekoa baino autotxertaketa proaktibokoa izan dadin saiatuz.

Beste gai batzuk, adibidez emakumeen lan-merkaturatzeak dakartzan protagonismoa eta aukera-berdintasunak, asoziazio-ehunaren gizarte-eremuratzea, eta geroz eta aktiboagoa den boluntariotzako erakundeen parte hartzea, Gizarte Zerbitzuen Lege bat onartu izana, gizarte-eskubideak babesten dituen... E.H.A.E.n eta Estatuan nahiz Europa mailan Gizarte-Babesaren alorrean eta Gizarte-Politikenean planteatzen diren erronka berriak dira. Erronka horiei erantzuteak politika proaktibo bat eskatzen du, besteak beste, gastuaren proportzioan neurtu behar dena. Zoritxarrez, Espainiako estatuak gizarte-politikan duen gastua, jada adierazi dugunez, B.P.G.ren %20,0an kokatzen da, Europar Batasunaren batz bestekoa %27,3koa izanik.

Pentsatzen dugu arlo nazionalean eta sozialean politika egiteko bide desberdinak daudela, herritarrei eragiten dizkieten arazoei aurre egiteko eredu desberdinak daudela. Aurreko mendean ezagutu genituen eran alderdi eskuindarrak eta ezkertiarrek agian desagertu egin dira. Baina argi dago batzuek nahiz besteek defendatutako funtsezko hainbat baliok indarrean dirautela.

### 3.1.3 JUSTIZIA ADMINISTRAZIO GERTUA ETA GIZATIA

Eusko Alkartasunak defendatzen duen giza-ereduak, ongizatea, solidaritatea eta justiziarena hain zuzen, ezin dezake onartu bere baitan garaiz kanpoko Justizia Administrazio sistema bat, zaharkitua eta euskal gizartearen beharrei gertuko erantzun azkarra emateko gai ez dena. Are gutxiago, bere espetxe-politika lehentasunez delitua egin duten pertsonen prebentziora eta horiek gizarteratzera zuzenduko duela ziurtatuko duen espetxe-politikarik ezin berma dezake.

Horregatik, eta defendatzen dugun Euskadi eta Espainiako estatuaren arteko harreman-eredu baten zain, egungo errealitatearen birbideratze bat berehala praktikan jar dadila eskatzen dugu, funtsezko bi aspektutan oinarritua : Justizia Administrazioaren dezentralizazioa eta "espetxeen" eskumenak transferitzea.

a) Justizia Administrazioaren dezentralizazioa.

Justizia Administrazioa dezentralizatzeak aspektu hauek jaso ditzake :

- 1.- Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusia jurisdikzioaren arlo guztietan prozedurak agortuko dituen azken aukera izatea eta, era berean, Kasazio-Errekurtsotaz arduratu dadila. Auzitegi Gorena Doktrina bateratzeko bakarrik geldituko litzateke.
- 2.- Justizia Auzitegi Nagusiaren Lehendakaritza eta Fiskaltza Nagusia, Autonomia Erkidegoak aukera ditzala.
- 3.- Epaileak, Magistratuak eta Fiskalak izendatzeko hizkuntza koofiziala eta Norberaren Zuzenbidea -Foru-Zuzenbide Zibila eta Zuzenbide Autonomikoa- ezagutzea betekizuna izan daitezela eta ez meritu bat.
- 4.- Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileak -Kudeatzaileak, Bideratzaileak eta Laguntza Judiziala- Estatuko Kidegoa gal dezatela eta erabat transferituak izan daitezela Autonomia Erkidegora, organikoki eta funtzionalki haren menpe egonaz.
- 5.- Idazkari Judizialen Kidegoa oso osorik Autonomiai Erkidegora transferitua izan dadila.
- 6.- Euskal Kontseilu Judizial bat sor dadila, berezko eskumen osoak edukiko dituena, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin berdintasuneko harremanak edukiko dituena, eskumen-printzipioak eraenduko duena eta ez hierarkia-printzipioak.
- 7.- Autonomia Erkidegoak eskumen osoa eta esklusiboa eduki dezala Planta Judizialari, lurralde mugapenari eta haren hiriburua finkatzeari dagokionean. Era berean, organo judizial berriak eta horietan Sekzio berriak sortzeko ahalmen osoa edukiko du.

b) "Espetxeen" eskumena transferitzea.

Eak, Eusko Jaurlaritzak eta euskal gizarteak behin eta berriro, eta ahalik eta bide guztietatik eskatu izan dute transferitu gabeko eskumenak transferitu daitezela, ia EAeko Autonomia Estatutua indarrean sartu zen une beretik.

Konstituzionalitate-multzoaren barne dagoen Gernikako Estatutuak jasotzen dituen aginduetariko asko betetzeke dago. Estatutuaren 12.1 artikulua aurreikusten du Autonomia Erkideak zigor-arloko legeria eta penitentziarioa gauzatzeko eskumena edukiko duela; 10.14 artikulua dio espetxeak antolatzeko eta kudeatzeko eskumena edukiko duela.

1979. urteaz geroztik beraz, lege hori betetzeke dago, horren arabera Eusko Jaurlaritzak gauzatu beharko lituzkeelarik zigorrak eta segurtasuneko neurriak, gizartearentzako lanak, etab., baita espetxeen kudeaketa ere.

Estatutuari zor zaion errespetuagatik, legea bete dadila exijitzen dugu, baita zigor-epaiak betetzeko beste era batetan sinesten dugulako, zigorren gauzatze-sistema eredu desberdin batetan, pentsatzen dugulako euskal herritarrek gizatasun eta duintasun printzipioetan, zigortuek dituzten eskubideen errespetuan eta gizarteratzean oinarritutako sistema bat edukitzeko eskubidea dutela.

Helburu horrekin, EAK kudeatzen duen Justizia Sailak, urtero, estatua ez betetze horren egungo egoerak ahalbidetzen duen heinean, espetxeetan bizi-baldintzak hobetzeko, espetxeratuak gizarteratzeko lanean diharduten elkarteei laguntzeko, zigor-sistemaren barne espetxeratzeari alternatibak bilatzeko, zigor-bitartekaritza bultzatzeko, etab..., ahaleginak eta fondoak erabiltzen ditu.

Justizia Sail hau ez dago geldirik Estatutua betetzearen zain. Arestian aipatu denaz eta eskumena exijitzeaz gain, eskumen hori gauzatzeko prestatu da. Administrazio-antolaketa egokitu du, alternatibei dagokienean zerbitzuak eskaintzen ditu, gai honi buruzko estudioak enkargatu ditu eta gizartean hedapen zabala izan duen dokumentu batetan legeak betearazteko eredu propio eta desberdin batetarako oinarritzko ardatz politikoak zehaztu ditu.

Gure herriaren eta espetxeetako biztanleriaren tamaina txikiak, dagoen kohesioak eta gizarte-babes mailak, erakundeek eta gizarteak gai honekiko duten sentsibilitateak eta konpromisoak, prebentzioan eraginkorragoa den zigor gutxiagoko egikaritze-eredu bat ezartzeko egoera ezin hobean jartzen gaitu, neurri txikiko zentro espezializatuekin, kalitate hobegoko heziketa-arretarekin, osasun-arretarekin, lan-arretarekin, etab..., beharrezkoa ez den espetxeratzea ekidingo duen espetxearenganako alternatiba-sistema ahaltsu batekin, nahikoa langileekin, espezializatuak, formatuak eta ez zaintzara eta segurtasunera bakarrik dedikatuak, komunitate-inplikazio maila garrantzitsuarekin.

Eta Estatutua betetzen den eta eskumena transferitzen den bitartean, gure etorkizuna hipotekatzerik nahi ez dugun espetxe-eredu eta zentroak inposa ez dakizkigun ere exijitzen du; Euskadin garatzen diren azpiegiturak euskal erakundeei azal dakizkiela eta haiekin batera adostu daitezela exijitzen dugu; eta gai honetan negoziaketa eta kooperazio leialei heltzeko eskumena Eusko Jaurlaritzarena dela aitor dadila exijitzen dugu.

## 3.2 POLITIKAK EKONOMI GARAPENeko GAIETAN

### 3.2.1 EKONOMI SUSTAPENA ETA GARAPENA

Gu gaudeneko EBren eta ekonomia globalizatuaren esparruan, euskal gizarteak bere etorkizuna erabaki beharra dauka XXI. mendeko benetako eztabaidei aurre egiteko eta gizarte inklusibo eta solidario bat lortzeko, non herritar guztiak eroso egongo baitiren eta ongizateaz gozatuko baituten. Eta horretarako, gizarte moderno eta lehiakorra behar dugu, globalizazioari irekia, aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortuko dituen, bazterkeriarik gabe gizarte guztiarentzako ongizate maila hori bermatuko diguna.

Azken urtetan asko hobetu da euskal enpresa-ehunaren egoera ekonomiko-finantzarioa, aldi berean, aurrerapenak lortu dituen internazionalizatze bidean, are gehiago kontuan hartzen badugu gure enpresek oro har txikiak direla.

Baina bilakaera egoki horrek, geure buruari atsegina emateaz gain, duela zenbait urtetik hona euskal ekonomiari jada eragiten ari zaizkion eta eragiten jarraituko dioten aldaketa eta krisialdi gisa sumatzen diren mehatxuei buruz ohartarazi behar gaitu. Enpresaren jarduketa guztiei (salmentak, finantzak...) eragiten dioten elementuak kontuan hartu beharrekoak dira, esaterako globalizatzeko prozesu orokortua, munduko informazio guztia lortzeko aukera, erraza eta merkea dena, EBn Estatu berriak sartu izana, agertzen ari diren herrialde berriak adibidez Europa Ekialdekoak, Txina, India eta Asiako beste hainbat, informazioaren eta komunikazioaren teknologiatan eta biozientziaren aurkikuntzatan oinarrituta agertzen ari diren sektore ekonomiko berriak, etab...

Mehatxu-multzo horrekin batera, betiko lez, euskal gizarteak beti egin izan duen moduan era sortzailean aprobeztatzen jakingo dituen aukerak daude, nahiz orain iraganarekin zerikusirik ez duten klabe berriekin datozen.

Estatuaren ekonomiari dagokionean, euskal ekonomiak erronka bikoitza du. Alde batetik, eta gaur egun barne mailakotzat jo behar dugun esparruan, inguruabar globalizatu honetan birkokatzea. Eta, bestetik, ekintzailertzan, berrikuntzan eta jakintzan oinarritutako ekonomia baten oinarriak ipintzea eta garatzea. Hau da, ekonomia konpetitibo bat, geroz eta balio erantsi handiagoa duten zerbitzuak sortzeko eta emateko gaitasunetik neurtutakoa, non enpresen antolaketan pertsonen esku hartzea, kudeaketa teknika aurreratu berriak ezartzea, eta berrikuntzaren, teknologiaren eta ez teknologikoaren (prozesuak, marketina,

antolakuntza) aldeko behin betiko apustua, gure enpresa-ehunaren ezaugarri izango baitiren.

Beste era batean esanda, gure etorkizunaren zati bat zehaztuko duen eszenatoki baten aurrean gaude. Beraz, hainbat zoritxar-iragarpen eta gizarte-atsegineko zenbait arrisku alde batera utziz, euskal gizarteak oro har, eta ehun sozio-ekonomikoak bereziki, beregain hartu behar dute oinarri sendo batzuetatik abiatuta izugarritzko ahalegina egin behar dela enpresa-portaera eta portaera ekonomiko berri bat zehazteko, berrikuntzan, formazioan, produktibitatean eta kalitatean inbertituz merkatu ireki eta nazioartekoetan irekitzean eta finkatzean oinarritua.

Baina helburu ekonomiko horiek ez dira berez helburuak, xede bat lortzeko baliabideak baizik : gure herritarren ongizatea.

Bide honetan, gure barne-merkatuari eta gure ekonomia tradizionalari lotuta dauden beste sektore ekonomikoak birkontsideratzeari ere ekin behar diogu. Horrela, ez ahaztu dezakegu gure Herriko nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduera birbideratu behar ditugula, sektore horrek beharrezkoa duen duin-bihurtzearen ikuspuntutik. Globalizazioaren fenomenoak eta lehiatzea ezinezkoa egiten duten prezioetan nekazaritzako elikagaien inportazio ugariak, gure produkzioaren planteamendu desberdin batetara eraman behar gaituzte, kalitatean oinarritua. Bide horretan, oraingo "kateko" ekoizpenaren ereduaren ordezkari kalitatearen parametroan abeltzaintza estentsiboa sustatzearen alde egiten dugu. Ildo beretik, beharrezkoa iruditzen zaigu lurraren gehiegizko ustiapenaren aurrean ingurua errespetatzen duen eta kalitatezkoa den nekazaritza-ekoizpenaren kontzeptuan sakontzea.

Ikuspuntu berbera aplikatu behar da gure ekonomiako beste sektoreetan, batez ere orain azaleratzen ari den eta EHAEn kasuan bide onetik abiatu den turismoari dagokionean. Gure ustez sektore horretan balio erantsi handiagoko eta ingurumenarekiko eta gizartearekiko inpaktu txikiagoan formulak bilatzeko ekintza irmoa garatu behar da, XX. mendearren bigarren erdian Estatu mailan sektore honen ezaugarri izan den masifikaziotik ihes eginaz.

Azkenik, iragan hurbilean pisu ekonomiko handikoa izan den eta gure Herriaren idiosinkrasia berari lotua dagoen sektore bat, azken urtetan areagotu besterik egin ez den krisi sakona ezagutu duena, arrantzarena izan da. Planeta mailan eman den gehiegizko ustiapen basatiaren ondorioz arrantza-tokiak agortu izanak, jarduketa horren ikusmolde berri batetara eraman behar gaitu. Jarduera arduratsua ahalbidetuko duten mekanismoak finkatu behar dira, sektorearekin elkar lanean, erkidegoaz kanpoko arrain izoztuaren inportazioak



kontrolatuz eta orain dituzten mugak gaindituko dituzten eran arrain-haztegi arloan esperientzia berriak bultzatuz.

### 3.2.2 FORMAZIOA, IKERKUNTZA ETA JAKINTZAREN GIZARTEA

Eusko Alkartasunaren aukera eta garapen jasangarrirako era Euskadi Berritzaile eta lehiakorra da, aberastasuna eta enplegua sortzearekin konprometitua, euskal gizarte osoaren ongizatea eta kohesio soziala helburu dituena.

Horregatik Eusko Alkartasunak hazkuntza jasangarriko eragile gisa eta erabat integratzailea izango den gizarte bat eraikitzeko ardatz gisa jakintza eta berrikuntzaren alde egiten du, horiek funtsezko bi erronkei aurre egin beharko diotelarik :

- Gure ekonomiaren eta enpresen lehiakortasunari eta kalitateko enplegua sortzeari.
- Herritarren bizitza-kalitateari eta gizarte-barneratzea.

Eusko Alkartasunatik berrikuntza ez dugulako ulertzen gizarte-barneratzerik gabe. Ezin daiteke egon berrikuntza-tresnak maneiaturiko dituen gutxiengo bat eta bizitza-estandarretatik kanpo geldituko den gehiengo bat.

Giza-kapitala da gure lehengaia eta gure aktiborik handiena izan behar du. Garapen ekonomiko jasangarria geroz eta gehiago gaitasun-mailaren eta formazio-mailaren menpe egongo da, baita gertatzen diren aldaketa sozial eta teknologikoei egokitzeko eta erantzuna emateko gaitasunaren menpe ere.

Eusko Alkartasunarentzako lehentasuna du kalitatean, hezkuntzan inbertitzea, Herriaren etorkizuna bermatzeko baita, aukera-berdintasuna nabarmenduz. Horretarako, aukera berdintasun teorikoa egiazkoa eta adierazgarria izan dadin baliabideak, baldintzak eta gaitasunak herritar guztiek eskuratzea ahalbidetuko duten ahalegin guztiak egin behar ditugu.

Eusko Alkartasunatik, era berean, biztanleria aktiboaren kontzeptua garatzearen alde egiten dugu, eskubide eta eginbeharrei lotua, pertsonak parte hartzeko eran gaituz eta garatuz,

garapen pertsonala, garapen ekonomikoa eta lehiakorra eta kohesio soziala eta lurraldekoa integratuz.

Teknologia berriak adimentsu erabiliko dituen gizartea sortzeko gai izan behar dugu, horrek lehiakortasuna eta pertsonen bizitza kalitatea hobetzen lagunduko duelarik, eta bereziki gizartean barneratze prozesuak gizarte-egoera ahulekoei lagungarri izango zaizkielarik.

Eusko Alkartasunan aldaketaren eragile den eta lehiakortasunaren eta enpresa-garapenaren euskarri gisa berrikuntza bultzatuz jakintza-sustapenean diharduten enpresei, unibertsitateei eta pertsoneri laguntzeko konpromisoa dugu.

Eusko Alkartasunan, Euskal Herria oparago, solidarioago eta kohesionatuago bat egiteko berrikuntzan eta jakintzan erreferente izatearen aldeko apustua egiten dugu.

Gure erronka nagusia gure inbertsioak I+G bihurtzea eta jakintza aberastasunean begibistako emaitza bihurtzea da. Horretarako, arlo honetan ekintza publiko eta pribatu guztiak bultzatu behar ditugu, agente desberdinen kooperazioarekin berrikuntzaren kultura sustatuz.

Eusko Alkartasunatik emaitza finantzarioak eta norberaren aberasteak elkarrekiko konpromisoaren balioak eta enpresaren zerbitzura gizarte-lankidetzako balioak alde batera utz ez daitezten ahaleginduko gara.

Bere herritarrentzat aberastasuna eta ongizatea sortu nahi duen euskalduna bezalako edozein gizartek, bere garapena eta hazkundera berrikuntzan eta jakintzan oinarritu behar du. Garatutako ekonomiek berrikuntza beharrezkoa dute hazkundera bizkortzeko, jasangarria izan behar duen hazkundera, enplegua sortzeko eta aberastasun iraunkorra lortzeko.

Horregatik, etengabeko berrikuntzak menderatzen duen mundu batetan ezinbestekoa da guztiok uler dezagun ezin daitekela lehiakortasunik egon zientziaren eta teknologiaren abangoardian egotearen apustua egiten duen profesionalik gabe, asmatzen duten, ideia berriak garatzen dituzten eta berritzen duten ekintzailerik gabe, eta produktu eta zerbitzu berriekin nazioarteko merkatuetan arriskatzen duen enpresarik gabe.

Berrikuntzarik gabe ez dago etorkizun jasangarririk, eta ulertu behar dugu funtsezkoa dela herritarren bizitza maila mantentzeko eta hobetzeko.

Eusko Alkartasunan, erakunde guztietatik eta noski baita Madrilgo Diputatuen Kongresutik eta Senatutik berrikuntzan eta jakintzan gure Herrian inplikaturako agente guztiak eta ildo horretan eragiten duten politika guztiak defendatzeko eta sustatzeko egingo dugu lan.

Eusko Alkartasunak honen alde egingo du :

- Aldaketaren eragile izango den bizitza osoan zeharreko ikasketa, herritarrek gizartean aktiboki parte hartuko duten bermerik onena ere izango delarik.
- Emoziozko adimenaren garapena, hezkuntzaren, familiaren, enpresaren eta antolakuntzaren esparruan.
- Jakintzaren sustapena, arreta berezia jarriz irakasleen formazioan, hezkuntzaren rol berriaren aurrean, transakzio-mugikortasuna, I+G+Brako giza baliabideak prestatu, jakintzaren hedapen soziala, lana antolatzeko era berritzaileak.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea babestea, horren barne egonik teknologia-zentroak, sektore-zentroak, enpresen I+G unitateak, Unibertsitateak eta ikerketan ari diren beste erakundeak.
- Ikerketa estrategikoko proiektuak babestu eta lagundu, bereziki masa kritikoa sortzeko eta ikerketako Europako espazioan arlo horietan nodo bat izatearren ikerketa estrategikoan lanean diharduten ikerketako taldeak, enpresak eta agenteak biltzen dituzten ikerketa-zentro lankideak.
- Ekintzaitza eta kultura ekintzailea sustatzea.
- Oinarri teknologikoa eta/edo berritzailea duten enpresak sortzeari laguntza.
- Enpresak sortzeko prozesuan finantzaketarako era berrien garapena, Herriarekin konprometitutako arrisku-kapital arduratsua sustatuz.
- Enpresak garatzeko lagungarri izango diren egiturei lagundu, esaterako Parke Teknologikoak eta Berrikuntza-poloak.
- Enpresa berriak sortzeko eta osatzeko prozesuetan biderapen burokratikoak eta administratiboak erraztu.
- Pertsonen enpresatan parte har dezaten sustatzera bideratutako kudeaketa-era berriak bultzatu, batez ere enpresa txiki eta ertainetan.
- Gure enpresak internazionalizatzeko proiektuak bultzatu, finkatzerakoan nahiz produktu eta zerbitzu berriak merkaturatzerakoan.

Informazio Gizartearen esparruan, Eusko Alkartasunatik haxe bultzatuko dugu :

- Informazio eta Komunikazio mailan teknologia aurreratuak gure enpresatan txertatzera bideratutako estrategiak garatzea, bereziki enpresa txiki eta ertainetan, lehiakortasuna hobetu dezaten.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak intentsiboki erabiltzean oinarritutako produktu eta zerbitzu hezitzaileak garatzea, irakaspen eta ikaste prozesuak hobetzeko.
- Jakintzaren gizartean Unibertsitateen rol berria sustatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak jakintzaren transmisioan txertatuz eta bertako nahiz Herrialdeko estrategiekin koordinatuz.

Euskal Herrian egiaz pertsona guztiak bilduko dituen Jakintzaren Gizartea lortu.

- Kohesio soziala lortzen eta bizitza kalitatea sustatzen laguntzeko aukera gisa.
- Edozein pertsona ezindu, edo behar berezi duen edonor Informazio Gizartearen onuratatik kanpo ez geratzeko neurri gisa.
- Generoa, ikasketa-maila edo errenta-maila direla eta teknologia berrietara iristerakoan gertatzen diren aldeak desagerrarazi.

Horregatik, informazioaren eta komunikazioaren teknologien sormenezko potentziala edonork erraz, aukera-berdintasunean eta erraz eskuratzearen alde jardungo dugu, haien bizitzak hobetzeko eta gizarte berdintsuago eta demokratikoago batetan aurrerapausoak emateko, non informazioaren gizartea faktore aurrerakoi eta kohesionatzailea izango baiten ikuspuntu zuzen eta solidario batetik garapen ekonomikorako eta sozialerako.

Eusko Alkartasunak, estatutu-paktua behin eta berriz bete ez dela salatu izan du, salatu du eta salatuko du. Gai horretan, era berean, ez da Estatutua bete, ez baitira transferitu ondasunak eta zerbitzuak ikerkuntza zientifikoan eta sustapen ekonomikoan gure ahalmena gauzatu ahal izateko.

Azken urtetan bakarrik, horiek ez betetzeak Euskal Herriko Autonomia Erkidegoari 1.000 eurotako defizita suposatu dio ikerkuntzarako kupoaren bitartez egiten dugun ekarpena eta horretarako Estatutik itzultzen zaiguna kontuan hartzen baditugu.

Eusko Alkartasunak gai hau transferitu dadila aldarrikatuko du, gure Herrialdearen garapenerako eta etorkizunerako behar-beharrezkoa baita.

Era berean, gure Herrialdea garatzeko eta gizartearen onurako konpromiso bezala berrikuntza eta ikerketa sustatuko dituen politika fiskala defendatuko du.

### 3.2.3 ZERGA ETA FINANTZA POLITIKA

Gai honetan ekarpen gutxi egin dezakegu EA Eren ikuspuntutik, konstituzioak eta indarreko estatutuaren esparruak xedatzen duenaren arabera Estatuaren aldetik eta Europar Batasuna beraren aldetik EA Eren eta Nafarroaren zerga-sistemaren subiranotasunari dagokion errespetua exijitzea ez bada.

Mingarria da konstituzioaren aldeko ustezko grina eta Gernikako Estatuarekiko itxurazko errespetua goratuz, Estatuko indarrek haien edukia berregiten joan izana. Euskadi eta Espainaren arteko itun bati lotutako eskubide bat Estuari interesatzen zaionean itzul dadila eskatu daitekeen eskuzabaltasun oparo bihurtzen saiatu dira. Ikuspuntu hori Europako erakundeetara eramen da, haiek Estatuaren nagusitasuna mantentzeko interesa dutenez zerga gaietan arauak emateko gaitasun osoa haiek dutela xedatuz.

Horregatik, gure subiranotasun fiskalari dagokion aitortpena eta errespetua exijitzen dugu eta, ondorioz, gai fiskaletan europako erabaki-eremutan berdintasun mailan egotea.

Eta, nola ez, negargarria iruditzen zaigu gaurko egunean oraindik transferitzeke egotea kreditua eta bankua, aseguruak, mailegu ofiziala eta balore-merkatua bezalako tresna ekonomikoak. Eskumenei dagokienean hauteskunde-programa honetan zehar adierazi denari ezer gutxi erantsi dakioko.

Hala ere, Eusko Alkartasunaren ezaugarri den ikuspuntu aurrerakoi eta sozialdemokratatik, Gorteetan aurrera eramango dugun zereginen, fiskalki subiranoak diren EAE eta Nafarroa erakundeetan aldarrikatzen dugunarekin bat datozen proposamenak egingo ditugu.

Horrela, gizartearen hausketaren aurkako borrokaren zerbitzura fiskalki eta finantzarioki ekitearen aldeko apustua egiten dugu. Ondorioz, zergapetze zuzenaren aurrean zeharkako zergapetzea mailaka haztearen alde Europar Batasuna osoan orokorra den joera berraztertzearen alde egiten dugu.

Era berean, zergapetze berdearen kontzeptua zerga-sistema espainiarrari inkorporatzea bere dimentsio osoan ulertuta garapen jasangarriaren aldeko Eusko Alkartasunaren apustu

sendoa da. Hementxe bertan, hau da zerga-sisteman, batzen dira ekonomia, gizartea eta ingumena kontzeptuak politika publikoen maila berdinean, eta bertan gera daiteke zehaztua erakunde-agenteen benetako izaera aurrerakoia.

### 3.2.4 GARRAIOA ETA HORRI LOTUTAKO AZPIEGITURAK

Europar Batasuneko barne-garraioaren demanda 2000 eta 2010 urteen artean %40 igoko dela zioten adituen aurreikuspenen aurrean, Europar Batasunak Garraioaren Liburu Zuria egin zuen batasunaren barneko garraioaren horrelako gorakadak ingurumenean eta osasunean sor ditzaken eragin larriak eta bidetako azpiegiturentzako suposa dezakeen kolapsoa ekiditeko soluzioak diseinatzearen.

Beharrezkoa zen garapen jasangarria ahalbidetuko zuten garraibide alternatiboak eta hazteko gaitasun handiagoko soluzio logistikoak aurkitzea.

Europar Batasuneko Garraioaren Liburu Zuriak hazkunde ekonomiaren eta mugikortasunaren hazkundearen arteko erlazioa apurtuko duten estrategia bideragarriak finkatu nahi izan ditu, garraibide desberdinak berrorekatzeko, estuguneak ezabatzeko eta garraioaren globalizazioa kudeatzeko helburuarekin.

Helburu horiek lortzeko, 60 proposamen garatzen dira. Horietatik, salgaien garraioari buruzko esanguratsuenak hauek dira :

- \* trena indartzea.
- \* itsas garraioa eta ibaiko bultzatu.
- \* intermodalitatea gauzatu.

Ilido beretik, EBko Garraio-Ministroen Kontseiluak 2002ko maiatzaren 31ean eta ekainaren 1ean eta 2an adierazten zuen errepide-garraioaren hazkundera arintzearen eta horrek suposatzen duen auto-pilaketa, istripuak, soinuak eta airearen kutsadura gutxitzen laguntzeko, distantzia laburreko itsas garraioaren aldeko apustua egiten zuela. Horretarako, itsas-tren intermodalitatea sustatzeko beharra eta konpromisoa aipatzen zituen.

Ezin ahaztu daiteke Europa Komunitarioaren esparruan XX. mendearen azken hamarkadan distantzia laburreko itsas garraioa errepide-garraioaren hazkunde-mailan mantendu ahal

izan zen garraio bide bakarra izan zela, biak %25etik gora egin zutelarik. 2001ean distantzia laburreko itsas garraioak Europako tona-kilometro guztien %40 suposatu zuen, errepide-garraioaren kuota aldiz 45ekoa izan zelarik.

Errealitate hori zaildu egiten da euskal portuen kasuan, eskumen-erregimenak Pasaia eta Bilboko portuen titularitatea Estatuako Portuen Sozietateari uzten baitio. Ez da antolatu tren-garraio sareekin koordinatzeko nahikoa mekanismo, portua-trena intermodalitate egokia galarazten duten titularitate eta ezaugarri tekniko desberdinak aurkitzen ditugularik.

Horrela bada, europa mailako ikuspegi hau bereziki egokia da Espainiako estatuaren arazoak ikusterakoan, are gehiago EA Eren eta Nafarroaren kasuan. Gainera, garraio publikoak garraio bide pribatuen aurrean duen ahultasuna erantsi behar zaio horri, bidaiariak garraiatzerakoan bide probatua portzentajezko pisua handituz joan delarik azkeneko hamarkadatan, eta horrela, berez soluzio zaila duen arazo bat areagotu egin da.

Are gehiago produkzioko jarduera ekonomikorako eta hirugarren sektoreko jarduerarako espazioak hirigunetatik irtetea bultzatu duen eredu urbanistiko orokortuarekin. Horren ondorioz, gure herritarren egunerokotasunean joan-etorriak esponentzialki gehitzen dira, joan-etorri horiek oro har izaera pribatukoak direlarik.

Egoera horren adibide bitxia dugu gure aireportu sistema. Gaizki kudeatutako azpiegitura horien titularitatea estatuak gorde izanagatik elkarrekiko planifikaziorik ezari, horren eragite-eremuko herritarrei irisgarritasuna emateko garraio sistema publikorik eza erantsi behar zaio. Horrela, ez da bideragarria sistema koordinatu bat ezartzea 200 kilometro baino gutxiagoko eremuan kokatuta dauden lau aireportutarako -bost Biarritz/Parmakoa gehitzen badugu- proportzionalki eskasa den biztanleria baten beharrei (hiru milioi pertsona baino gutxiago) erantzun egokia emateko, eta ondorioz joan-etorri pribatuek gure inguru gertuko aireportuen sareak eskaintzen dituzten hegaldien bidai osagarri ia guztiak suposatzen dituzte.

Euskal tren sare berria abian jartzeak erantzun garrantzitsua emango dio, nahiz ez osoa, arazo honi, eta beraz, Eusko Alkartasunak bere babesa ematen dio egun hauetan inplementatzen ari den azpiegitura-sistema honi. Edonola ere, garrarioaren eta hari lotutako azpiegituren arazo global honen aurrean Estatuak mantendutako jarrera osotasunean berraztertzea nahitaezkoztat joz, besteak beste neurri hauek proposatzen ditugu :

- Itsas garraioa eta tren garraioa bultzatzea Europar Batasunean barneko garraioaren demanda-hazkunderari erantzuteko.
- Garraio publikoa bultzatu garraio bide pribatuen aurrean.

- Eredu urbanistikoak eta lurraldekoak berraztertu joan-etorrien beharra gutxitzearen.
- Bilboko eta Pasaiako portuen titularitatea EAERI transferitu dakizkiola, baita trenbide guztiak eta Hondarribia, Loiu eta Forondako aireportuak ere, salgaien eta bidaiarien garraio eta logistika sistema integratuak sortzearen.



### 3.3 POLITIKAK INGURUMENA BABESTEKO ETA BALORATZEKO GAJETAN

#### 3.3.1 URAREN ZIKLOAREN ERABATEKO IKUSPENA

Uraren gaia erabateko ikuspenetik hartzeak, hurbileko iraganeko ikuspuntu murriztaileak gaindituz, gai honetan Eusko Alkartasunak duen oinarriko elementuetariko bat da.

Perspektiba historiko batetik, denboran hurbila gainera, uraren gaiaren planteamenduak oso ikuspuntu zatitua izan du ezaugarri. Planteamendu horretan banaka heltzen zitzaien gai hauei : ur-horniduraren bermea, jarduera ekonomikoaren eta sozialaren eskura zegoen beste baliabide gisa ulertua, mugaezina izatearen ezaugarriarekin, berriztagarria noski eta ondorioz itzulketa-ekintzarik behar ez duena; erreka edo ibaietan edo zuzenean itsasoan bukatzen zuten giza-jarduerak sortutako hondakin uren soluzioa.

Ikuspegi horretatik, Administrazioaren zeregina gizarte-jardueraren zerbitzura ur-ekarpeneko egiturak eraikitzea mugatzen zen, edo erabili eta kutsatu ondoren urak jasotzeko azpiegiturak eraikitzea ubide eta uretara eramanez. Orainsu ekin zaio behin betiko isuri aurretik hondakin urak arazteko azpiegiturak eraikitzeari, horiek eskasak direlarik oraindik estatuko geografian zehar.

Ibaien eta haien inguruko oreka ekologikoaren kezka ez da duela hamarkada gutxi baino sortu, adierazi diren beste gaiei aurre egindako era desberdinean hartu delarik.

Eusko Alkartasunak, Uraren Zuzentaraua jarraiki, uraren zikloa osotasunean hartuko duen ikuspegi era bat desberdin baten aldeko apostua egiten du. Hornidura, saneamendua eta ubideen oreka ekologikoa ezin dira banandu. Jarrera hori, posizio teorikoei erantzutetik urrun dago, praktikan frogatu baita Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Departamentuak bultzatutako Uraren Euskal Legea onartzearekin. Lege hori gai honetan gure alderdiak dituen programa-printzipioaren adibide garbia dugu.

Horrela, gizarte oparo eta xahutzaile baten eskaerak areagotzen diren hein berdinean hazten den eskaintzaren hazkuntza progresiboa eskatzen duen izaera ekonomikoko baliabide bezala ura ikuste horren aurrean, Eusko Alkartasunak jarduera publikoa birbideratzea proposatzen du. Jarduera publikoa eskaria kudeatze aldera birbideratu behar da, ur-kontsumoa benetako beharretan oinarrituz egin dadila ziurtatuz. Bizitza-baliabide hau berritzeko naturak duen berezko gaitasuna zorrozki eta era neurtuan ulertu behar dira, ez

bakarrik gure ezaugarri den hiri-gizartearentzako, baita gure herrialdearen landare eta animalia ororentzako ere.

Apustu hau estatuko lurralde osorako egin behar da, Euskal Autonomia Erkidegoaren legeriari erantsitako neurriak eramanaz nola ezarri nahi diren lurraldearen benetako harrera-gaitasuna kontuan hartu gabe diseinatutako eta kokatutako izaera espekulatzaileko operazio urbanistiko handiei lotutako etengabeko demanda birbideratzera zuzendutako politika aktiboak zehaztuz. Demanda horrek, gainera, gero eta urrunago dauden sistema hidraulikoetatik ura ekartzeko eskaera jarraituak sortzen ari da, inoiz gertatu behar ez zuten lurralde arteko eta erakunde arteko gatazkak sorraraziz.

Guzti hori, babestu beharreko balio naturalen errespetu arduratsutik, biziraupena eta, hala balitz, ubideei lotutako ekosistemen birsorkuntza eta balioztapena bermatuz eta gizarte garatzaile eta parrastatzaile batek sortzen duen sistemaren oreka orokorrarenganako litekeen aldaketa ahal den heinean mugatuz. Bizitza bera babesteko funtsezko elementu da ura, gizakiaren presentzia beste elementu bat besterik ez izanik.

Ikuspuntu horretatik, Gorte Nagusietan Eusko Alkartasunak neurri hauek defendatu eta bultzatuko ditu :

- Estatuaren indarreko legedia aldatzea, Europako zuzentarauei hertsiki egokituz.
- Uraren egitura administratiboa berregituratzea arazo honi aurre egingo dion politika integral berri batek eskatzen duenari egokitzeko.
- Gai honen eskumen osoa EAERI transferitu dakiola eskatzea, gure Erkidegoan uraren politikaren kudeaketa egokia bermatuz.
- Eskaeraren kudeaketa lehentasun publiko moduan sustatzeko Estatuko Administrazioetik politika aktiboak zehaztea.
- Hiri-eskaerako guneetako lurralde antolaketa egokia bermatuko duten planifikazio-tresnak bultzatu, kokatzen direneko espazioaren benetako harrera-gaitasunari egokituz.
- Herritarren artean uraren kultura berria zabaltzen aurrera egingo duten kontzientziazio kanpainak garatu, kultura berri hori arazoaren ikuspegi orokor moduan ulertuz.

### 3.3.2 HONDEKINEN GAJETAN PREBENTZIO, BERRERABILTZE ETA BIRZIKLATZE POLITIKAK

Ekonomikoki garatuen dauden herrialdeen eredu sozioekonomikoaren ondorio bereizgarri larrienerako bat hondakinen kudeaketa da. Populazioa hirigune handietan biltzeak, erosahalmena igotzeari lotutako gaixo-portaerako kontsumismoak, marketin eta salmenta-hobereneratze arrazoiengatik gero eta tamaina txikiagoan enbasatutako produktuen ugaritzeak, kontsumitzailearen atentzioa deitzeko eta erostera erakartzeko enbase erakargarriak bilatzeak... XX. mende amaieran eta XXI. mende hasieran garatutako gizartearen berezko ereduak azken finean, hazkunde esponentzialeko arazoa sortu du : hondakinak sortu eta pilatzearena.

Arazo honi aurre egiteko, Hondakinak Kudeatzeko Estrategia Komunitarioak, jatorrizko formulazioan jada, hondakinen kudeaketa hiru maila handitan hierarkizatzen zuen. Hurrenkera-ordenean maila horiek hauek ziren : gutxitzea, berrerabilpena eta berreskuratzea. "Hiru erre komunitarioen Printzipioa "(3Rs)" bezala ezagutzen dena da. Printzipio horren arabera, hondakinen sorrera ekidin behar da edo ahal den heinean jatorrian mugatu, bereziki kutsatzen ez duten edo zakar gutxi sortzen duten teknologiak eta produktuak erabiliz; sortzen diren hondakinak berrerabili egin behar dira, eta ezin bada, osagaien zati bat edo horien energia kalorifikoa aprobetxatuko diren moduan berreskuratu; azken finean baizik, aurrekoa egin ezin denean, hondakinak segurtasuneko baldintzatan ezabatuko dira.

Gaur egun hondakinen zuzentarau-marko europarraren berrazterketak oraingo zirriborroan berrikuntza kualitatiboa jasotzen du plangintzari dagokionean : prebentzioko plan berezien aurreikuspena, Batasuneko Estatuari askatasuna utziz hori egiteko modua erabakitzerakoan (hondakinen prebentzioko plan berezien bitartez, hondakinen plangintzaren barne prebentzioko plan berezien bitartez (Hondakinen Plan Nazional Integratua 2008-2015). Era berean, DMR delakoak hondakinen kudeaketarako hierarkia birformulatzen du, hirutik bost mailalara pasatzen delarik : gutxitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea, balioztatzea eta baldintza seguruetan ezabatzea. Gainera, hondakinen politikan bizitza-zikloaren ideia jasotzen du, eta horrela aurreko hierarkia aldatu egin daiteke, kasuan kasu, ingurumenaren gizartearen edo ekonomiaren aldaeren ikuspuntu integratzailetik hoberena denaren arabera. EAn erabat ados gaude formulazio horrekin, eta zentzu horretan doazen ekintzak bultzatuko ditugu.

Horrela, Eusko Alkartasunak, Gortetako bere ordezkarien bitartez, neurri hauek eskatu eta bultzatuko ditu :

- Merkaturatutako produktu-unitate bakoitzeko hondakin gutxiago eta arrisku txikiagokoa sortzen duten fabrikazio-prozesuak sustatzea.
- I+G+B bultzatzea lehengaien erabilpena murrizte eta birziklatutako materialak erabiltzea bilatzen duten prozesu berrietan.
- Bizitza-Zikloa kontzeptua sartzea hondakinak kudeatzeko ezein estrategia eta plana zehazterakoan.
- Hondakin-materia organikoa aprobetxatu dadin bultzatzea.
- Hondakinen prebentzioa pizteko sistemak finkatzea (Pay as You Throw edo antzeko ereduak...).

### 3.3.3 BALIO NATURALISTIKOA DUTEN ESPAZIOEN BENETAKO BABESA ETA BIODIBERTSITATEAREN BERMEA

Ekosistemak mantentzea, degradatutako sistemak berreskuratzea eta landare eta animaliak eta haien habitat naturala kontserbatzea Eusko Alkartasunaren programaren elementu definitzaile dira alderdi politiko gisa eratu zen une beretik, Kongresu Eratzaileko ponentzien ekintza-ardatzetako bat izanik.

Biodibertsitatea babestea, berreskuratzea eta bermatzea balio naturalistikoko espazioak babestearekin batera doa eta gure alderdiarentzat ezinbesteko lehentasuna dira, are gehiago kontuan hartzen badugu planeta mailan zein egoera zaila pairatzen ari den. Urbanizazioaren eta azpiegituren gorakadak, baliabideen gehiegizko esplotazioak, kutsadura mota desberdinak eta ekosistematzen espezie exotikoak sartzeak izugarri kaltetzen dute biodibertsitatea. 2005eko urtarrilean Parisen egin zen Biodibertsitateari buruzko Nazioarteko Konferentzian, galzori arriskuan dauden 15.000 baino animalia-espezie gehiago zenbatu ziren eta beste 60.000 landare-espezie.

Definizio ideologiko honekin bat, EAEko Ingurumen eta Lurralde Antolaketa departamentuan Eusko Alkartasunaren erakunde-arduradunek, ekintza proaktibo ausarta garatu dute, beste behin ere, gai honetan estatuko legeriak dituen hutsuneak ere betez.

Horretarako erreferentzia gisa Ingurumenari eta Garapenari buruz 1992an Rio de Janeiron egin zen Nazio Batuen Konferentzian sinatu zen Aniztasun Biologikoari buruzko Munduko Hitzarmena hartu da bereziki. Hitzarmen horrek planeta osoko aniztasuna mantentzeko

lehenengo marko globala izan zen. Biodibertsitatearen balio intrintsekoa aitortzen zuen eta hura mantentzeko baliabide horien erabilpen jasagarria eta bidezkoa bultzatzen zuen.

Era berean, Europako Batasunak, Europako kontinente osoan ugaztunen % 42, txorien %15 eta ur gezako arrainen %52 eta milaren bat landare-espezie arriskuan zegoela ohartarazi ondoren, toki babestuen sare bat sortu zuen "Natura 2000 sarea". Aldi berean, Ingurumen Gaietan bere Seigarren Ekintza-Programaren lehentasuneko helburu gisa biodibertsitatea babestea zehaztu zuen. Ondoren, erkidegoko arauen produkzioa handituz joan da biodibertsitatean aldeko ekintza-plana (2006-2010) bezalako inizatibak abian jarri diren bakoitzean.

Oraintsu onartu den Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legeak Europako araudia sartzekoan estatuko legeriak dituen hainbat hutsune zuzendu nahi izan du, esaterako, Habitats Zuzentaraua eta Estatuak gai horren inguruan sinatutako nazioarteko hainbat hitzarmen, aniztasun biologikoari buruzko Hitzarmena adibidez.

Ezin daiteke ahaztu bere ezaugarri orografikoengatik, azaleragatik eta kokapen geografikoagatik, klasifikatutako ia 80.000 taxoiekin, Espainia landare eta animalia espezie desberdin gehien dituen Europako estatuetariko bat dela. Aberastasun horren bi adibide dira landare baskularrak eta ornodunak. Estatuan dauden landare baskularrak 8.000 espezie biltzen dituzte, EBn daudenen %80a eta Europako kontinentean daudenen %59, horietatik 1.500 endemismoak direlarik. Bestalde, Europan daudenetako animalia-espezieen %50 baino gehiago dago.

Ondare naturalak eta biodibertsitateak pertsonen osasunarekin eta ongizatearekin duten lotura estuagatik eta garapen sozial eta ekonomikoari egiten dioten ekarpenagatik funtsezko funtzioa garatzen dutela aitortzen duen lege horrek, gai honen inguruan estatuko araudia eguneratzea suposatzen du. Hala ere, berehala ekintza konkretuak bideratu beharra dago. Horregatik eskatzen dugu :

- Desagertzeko arriskuan dauden habitat guztien Katalogoa egin dadila berehala.
- Babes Bereziko Erregimenean dauden Espezieen Zerrenda berehala egin dadila.

- Ondare Naturalarentzako eta Biodibertsitaterako Fondo bat sortzea, aurre egin behar zaion arazoak duen garrantziarekin bat etorriko den diruzuzkidurarekin.
- Espezie Exotiko Inbaditzaileen Katalogoa abian jar dadila.

### 3.3.4 POLITIKA ENERGETIKOA ETA KLIMA-ALDAKETA

Hauteskunde orokor hauen ondoren hasiko den legealdia erabakitzailea da Klima-Aldaketaren aurkako lehia globalean, "Post Kioto" izeneko negoziatu behar baita, eta bertan zehaztuko baita datozen 20 urtetako eredu ekonomikoa eta energetikoa. Gaur hartzen ditugun erabakiak etorkizuneko eredu zehaztuko dutenak dira.

Klima-aldaketaren arazoa indar handiz sartu da aurreko legealdian zehar herriarren bizitzako esparru guztietan mundu osoan. Klima-aldaketa, edo nahi bada, Lurraren klimaren aldaketa globala arrazoi naturalak medio Lurraren bizitza osoan zehar gertatu izan da. Baina azkeneko mendean gizakiak ezustean eragin dio klimaren bilakaera naturalari, denbora-eskala asko erasotuz, eta parametro klimatiko guztiak : tenperatura, prezipitazioak, hodeitza, etab.

Horrela sortzen da "berotegi-efektu" terminoa, atmosferan gas-geruza bat egotearen ondorioz Eguzkiaren berotasuna Lurraren atmosferan eusteari dagokiona. Gas horiek gabe, hein handi batean, bizitza, guk ezagutzen dugun moduan, ez litzateke posible izango, planeta hotzegia izango balitzateke. Gas horien artean karbono dioxidoa, oxido nitrosoa eta metanoa daude, industriak, nekazaritzak eta erregai fosilak erretzeak airerutzen dituztenak. Mundu industrializatuak gas horien kontzentrazioa iragan mendetik %30 igotzea lortu du, gizakiaren esku hartzerik gabe natura emisioak orekatzeaz arduratzen zelarik.

Gaur egun, ia orokorra den adostasun zientifikoa dago ideia baten inguruan : energia produzitzeko eta kontsumitzeko gure era klima-aldaketa global bat ekartzen ari da, eta horrek era berean, lurrarengan nahiz sistema sozioekonomikoengan eragin handia izango du.

Ondorioz, aurreikusitako klima-aldaketak nahikoa zehaztasunez zenbatzea uzten ez duten zalantzak badaude ere, orain arte balioztatu den informazioa nahikoa da Klima-Aldaketari buruzko Konbentzio Markoaren 3. artikulua aitpatzen duen "arretazko printzipioa" deiturikoa jarraituz berehala neurriak hartzeko. Nagikeriak, atzerapenek eta klima-sistemaren

atzerazintasunak kontuan hartu beharreko oso faktore garrantzitsuak dira, eta neurri horiek hartzen gero eta denbora gehiago pasa ahala berotegi-efektuko gasen kontzentrazioak gora egitearen eraginak atzerazinagoak izango dira.

Biztanleriaren gehiengoa naturaren gehiegizko antropizazioaren ondorioez eta klimatologiaren bilakaera naturalarengan berotegi-efektuko isurketen efektuez jabetzen ari bada ere, ezin daiteke esan gauza bera Estatuetaz, haien erantzuna desberdina eta oro har eskasegia baita. Komunikabideen bitartez guztiok ikusi izan dugu berotegi-efektuko gasak isurtzen dituzten estatu nagusien ikuskizun tamalgarrira (Estatu Batuak bezalako potentzia ekonomiko handiak edo Txina bezala indar handiz sartzen ari direnak), Kiotoko Protokoloa sinatzeari eta beraien isurketak gutxitzeko neurri zehatzak hartzeari uko eginaz.

Nahitaezkoa da, beraz, diskurtso erretorikoetatik neurri zehatzetara pasatzea, zentzu horretan politika bat bideratzeak suposatzen dituen zailtasunen jakitun izanik ere. Dena den, EAEko Ingurumen eta Lurralde Antolaketa departamentuak dioenaren arabera "Orain klima-aldaketaren efektuak gutxitzeko egiten dugun ahalegina klima-aldaketak ekonomian, ingurumenean eta gizartean etorkizunean ekarriko dituen koste altuak ekiditeko egin dezakegun inbertsiorik hoberena dira. Horregatik, ingurumena eta biodibertsitatea babestea eta klima-aldaketaren aurkako lehia edozein gobernuren funtsezko lehentasunen artean kokatu behar dira, eta berehala gainera."

Berotegi-efektuko gasak sortzeak eta isurtzeak jatorri desberdinak ditu, gizakiaren Lurrarenganako ekintzen orokortasunari lotzen baita; horrela, iturri nagusiak hiru ataletan desberdintzen dira : garraioan giza-ekintzak sortutakoak, jarduera ekonomikoarenak, bereziki industrialarenak, eta etxebizitzaren inguruan sortutakoak, etxebizitza zentzu zabalean ulertuta, hau da, eraikitze-prozesuetatik hasi eta biztanleriaren bizitze-jarduera beraino.

Hala ere, berotegi-efektuko gasen isurketa-iturri nagusien segmentazio hirukoitz horrek badu elementu amankomun bat, energiaren kontsumoa, hori sortzeko ezinbestekoa izanik, gainera, emisio horiekin zuzenean erlazionaturiko prozesu industrialak garatzea.

Horregatik, klima-aldaketaren aurkako lehiak energiaren eremuan du bere bataila-eremu nagusia, kontsumoaren kudeaketan (aurreratze eta eraginkortasunaren esparruan, prozesu industrialak optimizatuz, energia-kontsumoko produktu eraginkorrak orokortuz, produkzio teknologien eraginkortasun energetikoa hobetuz, garraio publikoa sustatuz...) nola amaikorrek eta oso kutsagarriak diren energia-iturri tradizionalak ordezkatzeko joatearren energia berriztatzaileak sartzean ulertua.

Ezin ahaztu daiteke, gainera, energia berritzaileak lortzeko estatuko lurraldearen ezaugarri aproposak. Milaka kosta-kilometro, itsasoaren korronteen indarrez sortutako energia aprobetxatzeko teknologiak ezartzeko aukerarekin, legamiak ekoizten dituzten nekazal azalera garrantzitsuak, sektore hori krisialdian dagoelarik elikadurari dagokionean, bereziki altua den intsolazio-maila ematen dion posizio geografikoa, energia fotovoltaikoa ekoiztera bideratutako azalera ezartzeko era bat interesgarri egiten duena...

Presazkoa da, beraz, administrazio autonomikoekin koordinazioan bi aktuazio-lerro handietan neurri zehatzak ezartzeko ausart ekitea.

Gai honi dagokionean, Eusko Alkartasunatik ondorengo ekintzei arreta berezia emango diegu :

- Ingurumeneko kostuak internalizatuko dituen eta mugikortasun-beharrak arrazionalizatuz eta demandaren kudeaketa adimentsua aplikatuz garraio-sare berriak sustatuko dituen mugikortasun jasangarri baten bultzada ausarta.
- Estatuan dauden zentral nuklearrak berehala ixtea, baita ikatzezko eta hauspozko zentral termiko konbentzionalak ere, eta ziklo konbinatuko zentralengatik ordezkatzeari lehentasuna eman.
- Emisio-eskubideen komertzio erregimenak eragindako sektoreei egindako eskubide-izendapena berrikustea, emisioen gutxitzea eta teknologia garbi berrietan inbertsioa sustatzeko, guzti hori kutsatzen duenak ordaintzen duela printzipiopean.
- Energia berritzaileen bultzada ugartzeko neurri ekonomiko eta fiskal sustatzaileak sartu, sortze-jarduera horri lehentasuna emanaz ohiko sortze-iturrien edo nuklearren aurrean.
- Energia-iturri desberdinen prezioak finkatu, ingurumeneko kostuak internazionalizatuz.
- Emisio-eskubideen Europako eskemara sektore aeronautikoa gehitu.



## **4 EUSKAL HERRIAREN ESKUBIDEEN DEFENTSA, BAKEA, LANKIDEETZA ETA GARAPENA, NAZIOARTEKO GAIETAN EAREN PROGRAMAREN ARDATZ**

Alderdi bezala sortu zenetik, Eusko Alkartasunak Euskal Herriaren presentzia Europar Batasunaren barne nazio gisa aldarrikatzen du, Batasuna osatzen duten gainontzeko nazioen maila berdinean. Horretarako, alderdi politiko europar gisa jada eratu den Europar Aliantza Librea (EAL) osatzen duten beste alderdiekin batera, urteak daramatza egungo EB aldatzeko eta Estatuari dagokion egitura juridikoa duen edo ez alde batera utziz eta bakoitzaren dibertsitatearen errespetua eta guztien arteko interesen defentsa batuz nazio guztiak aitortuko dituen Batasuna bihurtzeko.

Ezein status juridikoa edukiz eskubide nazionalen ikuspegi horrek, gizarte bidezkoagoa, askea eta solidarioa lortzera bideratutako bere ideologia aurrerakoi eta sozialdemokratarekin batera, munduko beste herri eta nazioekiko egoerekin sentikorragoa izatera eramaten du, horiek Estaturen eta nazioarteko korporazio handien interesen egungo sisteman desberdintasun handiekin eta gatazka odoltsuekin bizirautera kondenatuta daude. Gatazka horiei gainera, gaur egungo estatu-egiturek axolagabetasunez begiratzen diete, epe laburreko edo ertaineko interes ekonomiko edo geostrategikoengatik bultzatzen ez dituztenean.

Ikuspuntu horretatik, Eusko Alkartasuna, nazioaz gaineko organismoetan, elkarteetan eta erakundeetan dituen ordezkarien bitartez, bakearen benetako kulturaren aldeko inizatibak eramaten ari da, nazioen eta herrien artean harreman baketsuak lortzeko funtsezko baldintzak sortzera bideratuak; ulertuz lan hori ez dela mugatzen arazo militarrei ekitera, gizarte osoen desesperazioa areagotzea eragiten duten bestelako gaien inguruan esku hartzea ere suposatzen baitu, horrek askotan biolentzia-espresio mota desberdinetan amaitzen duten tentsioak areagotzera eramaten dutelarik.

Kezka horrekin, giza eskubideen errespetua, globalizazio solidarioa, garapen jasangarria, erakunde demokratikoak dituen nazioarteko sistema, justizia soziala eta berdintasuna nahiz herrien subiranotasuna lortzea helburutzat duten herriekin eta haien ordezkariekin loturak sendotzeko egiten du lan Eusko Alkartasunak.

Premisa horiekin, Eusko Alkartasunaren nazioarteko zeregina gutxien garatutako herrialdeen aurrerapen sozialari lehentasuna ematen dion eredu bat ezartzearen

bidetik doa, ezinbestekoa izanik bidezko merkataritza arduratsua, Hirugarren Mundua deiturikoaren gizarteek beraien lurraldetan kokatutako lehengaien gaineko kontrola berreskuratzea, nazioarte mailan duten mendekotasun finantzarioa birnegoziatzea kanpo-zorra kitatzean oinarrituz, eta gizarte industrializatuenen onura ekonomikoaren zerbitzuaren beren gatibu egoerarekin amaituko duen harreman ekonomikoen marko berri bat irekitzea. Bitartean, ezinbestekoa da garapenerako lankidetzaren proiektuetara Estatu industrializatuen BPGaren %0,7ko ekarpena egiteko printzipioa mantentzea eta lortzea, ekarpen horiek nahitaezkoak izanik nazioarteko ekonomiaren jolas-arau berri batzuek beraien gaitasun ekonomikotik dituzten beharrei aurre egitea ahalbidetzen ez dieten bitartean.

Hala ere, nazioarteko harremanen egungo markoan ia lortezinak diren planteamendu horiek, ia ezinezko bihurtzen dira biolentziak bere garrak jarri dituen tokitan, toki horiek normalean bat etortzen direlarik biztanleriaren erabateko pobrezia ezaugarritzat duten area geografikoekin alde batetik, eta herrialde aurreratuenetako talde ekonomiko handiek kontrolatzen dituzten lehengaiak edo aberastasun naturalak dituzten area geografikoekin bestetik.

Eusko Alkartasunak jakin badaki utopikotzat jo daitezkeen helburu horiek lortzearen aurrerapausoak emateko, alde aurretik bidea leunduko duten hainbat pauso eman beharra dagoela. Horrela, ezinbestekoa da Zigor-arloko Nazioarteko Auzitegia abian jartzea, giza eskubideen jurisdikzio unibertsalaren marko batetan bere zeregina egoki bete ahal dezan beharrezko baliabideak emanaz. Aldi berean, funtsezkoa da NBEren Segurtasun Kontseilua berregituratzea, garapen-bidean dauden herrialdeen ordezkariak areagotzeko handituz. Ildo beretik, giza eskubideen urraketen aurrean edo aurreikus daitezkeen lurralde-gatazken aurrean esku-hartze humanitarioa aitor dezan eskatzen dugu, eta disuasio armatuaren teoria presio diplomatikozko neurriek eta neurri ekonomikoek ordezkari dezentela, arma-produkzioa eta trafikoaren kontrol sistematikotik hasita.

Baina ekintzak ez dira Estatuaren botere-eremuan edo nazioarteko erakundeetan bakarrik garatu behar. Posible ikusten dugu beren operazioetan giza eskubideen babesa baloratzera eta errespetatzera emango dituen jokabide-kode bat enpresek onar dezaten sustatzea, bereziki jarduera transnazionala dutenek.

Eta, ondorio gisa, zapalketa-, okupazio- edo herriek libreki erabakitzeko eskubidea ukatze-egoerak amaitzearen alde egiten dugu. Zentzu horretan, eta Espainiako

estatuari eragiten dion heinean, askatasun baldintzatan Sahararen autodeterminazio erreferenduma egiteko Nazio Batuen Bake Plana bete dadila eskatzen dugu.

Helburu horiek guztiak lortzerakoan berebiziko garrantzia du "Europako herrien benetako batasun bateruntz Europar Batasunaren bilakaerak, norberaren lurralde mugen barne dauden herriekiko eta estatu gabeko nazioekiko sentikorra ez dena erruz izango baita sentikor munduan dauden gainontzeko herri eta nazioekiko. Ildo honetan, EAL osatzen duten gainontzeko alderdiekin eta erakundeekin elkarlanean jarraituko du osatzen duten gainontzeko herrien moduan Euskal Herriak bere eskumeneko eta intereseko gaietan parte hartze zuzena edukiko duen Europar Batasun berri bat lortzearren. Oinarrizko Eskubideen Gutuna konstituzionalizatuko duen Batasuna, esparru orokorreko Betearazle baten, eta zirkunskripzio naturalen arabera hautatutako Legebiltzar baten artean benetako botere-banaketa finkatuko duena, Legebiltzar horrek Europako eskumeneko gaietan lege-gaitasun osoa edukiko duelarik, eta noski, kanpo-politika bakarrarekin.

Gure ahalegina eta erakundeetan ditugun ordezkarien zeregina, kasu honetan Gorte Nagusietako Hauteskunde hauetara aurkezten ditugunena, helburu horiek lortzera bideratuko ditugu.